# Goienkaria

2006ko urriaren 11 > Eguaztena > VI. urtea > 260. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Erakutsi nahi dugu etikaren oinarriek garrantzia dutela gatazka konpontzeko"



**Jonan Fernandez**
Baketik > 09


**G2a** Aurkeztu dute II. Danbaka musika lehiaketa > 25

**HEZKUNTZA** MUren ikasturte hasiera ekitaldian egon da lehendakaria > 04

**OSASUNA** Gripearen aurkako txertoa ematen hasiko dira astelehenean > 05

**ELGETA** Oinezkoendako oztopoak kentzeko lanak hasiko dituzte > 22


**GARRAIOA** > AZTERKETA

## Lantegira zirkulazioa hobetu

Lantokiek mugitzen duten zirkulazioa arindu eta hobetu nahi dute > 02-03

**ARAMAIO** > ETXEBIZITZA

## Babes ofizialeko etxebizitzei 2007 hasieran ekingo diete

Pedro Inazio Barrutia kalean egin behar dituzten babes ofizialeko etxebizitzak 2007ko lehen hiru hilekoan hasiko dituzte; hala esan du Etxebizitza sailak. Etxeok eraiki behar dituzten orubean egindako urbanizazioa segurua den aztertzen dabiltza, eta behar diren konponketak egingo dituzte lehenik. > 23

**MUSIKA** > KONTZERTUA

## Barricada zuzenean zapatuan

Barricada taldearen kontzertu akustikoa dago Arrasaten > 13




KALTEAK Musakolako bizilagun batzuk, harriek auto baten egindako apurketari begira.

XABIER URTZELAI

**ISTRIPUA ARRASATEN** > AUTOBIDEKO LANEK HARRI-JAUSIA ERAGIN DUTE

# Hiru zauritu eta kalte handiak Arrasateko harri-jausia dela eta

**EZTANDEN ERAGINEZ** AP-1eko lanetako eztanda batek harriak jaustea eragin du martitzenean

**ONDORIOAK** Hiru lagun arin zauritu ziren eta Zigorrolako etxe askok kalteak izan dituzte

**BIDEGI** Ezbeharraren zergatia ikertzen ari da Bidegi, eta ez dute eztanda gehiago egingo > 05

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-05
**Gutunak** > 06
**Elkarrizketa** > 07
**Herriak** > 09-23
**Kirola** > 24
**Kultura** > 26
**Gazteak** > 27
**Sailkatuak** > 28
**Berri-zakua** > 29
**Telebista-Irratia** > 30
**Non-zer** > 31



Omega Elevator, s.a.

• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com




**MUGIKORTASUNA** > LANTEGIETARANTZ DOAN ZIRKULAZIOA IKERTZEN ARI DIRA

# Lantegietara doan zirkulazioa hobetu gura dute Arrasaten, Bergaran eta Oñatin

**ELKARLANA** Mankomunitateak eta udalek izan dute iniziatiba, eta Gizloga, Gipuzkoako logistika eta garraio foroa, dabil ikerketa lanak bideratzen

**ARAZOAK** Hiru herrietako lantegi gune handietara doan zirkulazioa oso astuna da, langile asko ibiltzen direlako, norbera bere autoan

**IRTENBIDEA** Proiektuak datubatze fasean dauden arren, arduradunek argi daukate garraio publiko mota bat edo bestea dela irtenbidea



**PUNTU BELTZA** Arrasateko Udala plazako biribiletik

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Debagoienean, zirkulazioaren zati handienetako bat lanera joan-etorria egiten dutenek osatzen dute. Kasu gehienetan, gainera, ibilgailu pribatuetan egiten dira ibilbideak, eta norberak bere autoan. Horrek zirkulazio arazo dezente sortzen ditu. Hori ikusita, Debagoieneko zenbait erakunde irtenbideak emateko lanean hasi dira.

Horretan dihardute, hain zuzen ere, Mankomunitateak, Oñatiko Udalak eta Gizlogak –Gipuzkoako Garraioa eta Logistika Garatzeko Herritarren eta Enpresen foroa, Foru Aldundiak sortutako erakunde bat. Oñatiko Udalak bere aldetik ekin zion lanari, baina aurrerantzean Mankomunitateak bideratuko ditu azterketa guztiak. Arrasate, Bergara eta Oñatiko lantoki handi batzuetara joan-etorriak aztertzen ari dira orain, hurrengo fase baten hori arintzeko.

Nahiz eta Gizlogak egin azterketa lana eta geroko txostena, proiektu hauen iniziatiba mankomunitateak eta udalek hartu dute, eta dirua ere erakunde horiek ipintzen dute. Gizlogako arduradun Ruben Urrestarazuk dioenez, hau berritasuna da: orain arte Gipuzkoan egin dituzten proiektuak Gizlogak berak finantzatu ditu.

Gizlogak beste mugikortasun proiektu bat ere badarama gurean: hain zuzen, Arrasate herri barruko zamalanak hobeto gestionatzeko proiektu bat.

**HRU HERRI, EGOERA BERDINA**

Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, langileen mugikortasunaren gaineko proiektu bana egiten ari dira.

Arrasateren kasuan, lehenengo, lanarekin lotutako zirkulazio altuena eta arazo handienak dituen gunea aukeratu dute: Udala plaza inguruko biribilgunea eta errepideak. Batik bat, Fagor Garagartzara eta Ederlanera doazen autoen zirkulazioa aztertzen ari dira han. Oraindik goiz da ondorioak aurreratzeko, baina, Ruben Urrestarazuk dioskun moduan, "garraio publikora bideratu gura ditugu langile gehienak: ohiko autobusa dela, enpresako autobusa dela zein autoa konpartitzeko ohitura hartzea". Oraingoz, aipatutako lantegiekin elkarlana indartzen ari dira, hori "beharrezko" jotzen baitu Gizlogak.

**Hiru lantegi-gunera doan zirkulazioa arindu eta hobetu gura dute: Arrasaten, Fagor Garagartzara; Bergaran, Arcelor eta Mayc-era; eta Oñatin, herritik Zubillagara**

**Arduradunek esaten dute abantaila asko ekarriko dituela zirkulazio egoera hobetzeak: langileak ordurako iristea, enpresarendako gastu murrizketa, kutsadura gutxiago...**

Bergaran oso antzeko azterketa egiten ari dira, kasu honetan Arcelorreko eta Mayc-eko industria guneen inguruan. Kasu honetan ere, lana hasi berria da: udalak, enpresek eta mankomunitateak batzar batzuk egin dituzte, eta LKS ari da ikerketa egiten.

Oñatiko kasua berezia da, izan ere, udala bere kabuz hasi zen egoera ikertzen joan den martxoan, nahiz eta aurrerantzean mankomunitateak bideratuko duen ere lan hori. Langileen joan-etorrien berri jasotzeko, inkesta egiten hasi ziren herriko enpresa handienetariko batzuetan; denetara, 3.000 langile batzen dituzten 17 enpresa handi dira, eta herritik Zubillagara arte kokatzen dira.

**ARDURADUNAK, BAIKOR**

Arrasate eta Bergarako kasuetan, azterketa Gabonetarako bukatuta edukitzea espero du mankomunitateak; Oñatikoak zerbait gehiago hartuko du. Hala ere, badirudi hiru kasuetan konponbideak mota berekoak izango direla: garraio publikoa. Ikusteko dago zelakoa izango den –autobusa edo autoa konpartitzea–, zeinek antolatuta –Pesa enpresaren ohiko autobusa izango den edo enpresa-autobusa antolatu beharko den…

Gizlogako Ruben Urrestarazuk onartzen du oraingo autobus zerbitzua ez dagoela horretarako bezain aurreratua, baina baikorra da: "Autobus zerbitzua hobetzeko ahaleginak egin dira, eta tranbiaren proiektua ere aurrera doa", esaten du.

Azterketaren zati garrantzitsuena zein den ere azaltzen du: "Jendearen ohiturak ezagutzea. Arrasateko leku jakin batetik,

## Arrasateko azoka plaza trabak kendu eta ondo egokitutako leku baten eredu da

Gizlogaren proposamen batzuk aurrera eraman dira Debagoieneko beste konflikto kasu baten, eta arrakastarekin: Arrasateko azoka plaza.

Hori iaz aztertu zuten, Tolosako, Irungo eta Donostiako gune banarekin batera. Oso ezaugarri antzekoak zituzten laurek. Bi egunetan, azoka plazan eta inguruan –Otalora eta Mondragones kaleetan– zegoen zirkulazioa begiratu zuten. Besteak beste, honako ondorioak atera zituzten: zamalanak lur azpitik egin behar zirela; goizeko ordu txikietan egiten zituztela askotan, eta zaratek traba handia egiten zutela; eta, merkatua beherantz zegoenez, jaitsi egin behar zela eta hori zailtasun bat zela garraiolariendako eta bezeroendako.

Arrasateko Udalak Gizlogak proposatutako hobekuntza gehienak egin zituen: zamalanendako aparkalekua egokitu, oinezkoek erabiltzeko moduan ipini, eta beste neurri batzuk.

## Debagoieneko zirkulazio orokorra hobetzeko, garraio publikoa bultzatzea

Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko zirkulazio egoera hobetzeko bestelako lanak egiten ditu. Hala, 2005eko martxoan, Debagoienean mugikortasuna planifikatu eta kudeatzeko azterketa egin zuen.

Besteak beste, datu hauek topatu zituzten: 62.000 biztanleko eskualde baten, eguneko 72.000 bidaia egiten ziren motorreko ibilgailuetan; garraio publiko tasa EAEko baxuena zen (12 leku 100 biztanleko); kongestio tasak oso altuak ziren: adibidez, Arrasate-Bergara errepidean trafikoaren %57 pilatzen zen arratsaldean.

Txosten honek proposatzen zuen bide batean hasi dira pausoak ematen: garraio publiko sistema berria finantzatzea proposatzen zen. Beste proposamen batzuk hauek dira: herritarrak hobeto informatzea garraio publikoaz; bidegorri plana aurrera eramatea; udalek mugikortasun planak egitea; edo tranbia eta autobusa elkarrekin koordinatzea.




langile asko pasatzen dira autoz egunero.

IKER BARANDIARAN

ordu jakin baten hainbat lagun irteten direla jakin behar dugu, garraiobide berri bat ipintzeko behar adina diren ikusteko". Urrestarazuren esanetan, zirkulazioa hobetzeak onura asko ekarriko ditu: "Puntualitatea hobetuko da, gastu estrak kenduko dira, kutsadura murriztuko da…".

Gizlogak mota horretako proiektu arrakastatsuak egin ditu Gipuzkoan. Lana egiteko modua da Gipuzkoako industrialde modeloak topatzea, eta modelo bakoitzarendako balio duen irtenbidea aplikatzea.

**ARRASATEKO ZAMALANAK**

Bestelako azterketa bat egiten ari da Gizloga Debagoienean: Arrasateko zamalanek erdigunean sortzen dituzten trabak arindu gura dituzte. Horretarako ere, hainbatekin mahaia osatu dute: dendariekin, garraiolariekin, udaltzaingoarekin…

Kasu horretan, alde bakoitzak bere kexak ditu: garraiolariek diote zamalanak egiteko denbora behar dutela, eta horixe eman diezaiotela eskatzen dute; dendariek, berriz, onartzen dute merkataritzarako beharrezko lana dela, baina komertziorako traba egiten diela ere esaten dute. Irtenbidea ordutegi bat adostean egongo da: modu horretara, zamalanek ez dute kalean eragozpen larregi sortuko; eta garraiolaria leku bakoitzetik behin bakarrik pasatuko da. Ruben Urrestarazuren esanetan, ordutegi egokiena dendak ireki aurrekoa da.

LABUR

**> GIZLOGA**
Gipuzkoako Garraioa eta Logistika Garatzeko Herritarren eta Enpresen foroa da. Foru Aldundiak sortutakoa da, eta herritarrak garraioarekiko sentsibilizatzen, mugikortasun ona eta segurua ezartzen... egiten du lan.

Mankomunitatea eta udalak Gizlogaren bidez ari dira ikerketa lanak egiten.

**> AUKERATUTAKO GUNEAK**
Herri bakoitzean, lantegi-gune handi bat aukeratu dute, eta mugitzen duen zirkulazioa aztertzen ari dira: Arrasaten, Fagor Garagartza eta Ederlan; Bergaran, Arcelor eta Mayc; eta Oñatin, 3.000 langile batzen dituzten 17 enpresa.

**> DATUAK BATU**
Une honetan, informazioa batzen ari dira. Elkarrizketa eta inkesta bidez egiten dute hori. Langileen ohiturak jakin nahi dituzte: nondik irteten diren, ze ordutan, ze bide egiten duten, ze garraiobidetan...

**> HELBURUAK**
Zirkulazioa arintzearekin batera, hainbat helburu bete nahi dituzte: langileak ordurako iristea lanera; enpresari berandu heltzeak dakarzkion gastuak murriztea; kutsadura gutxitzea; gainerako gidariei eta oinezkoei trabak arintzea... Hori lortzeko, garraio publikoa edo autoa konpartitzea bultzatu nahi dute.





**IKASTURTE BERRIA** Oliveri, Ibarretxe, Campos, Catania eta Perez MUko ikasturte berriaren hasiera ekitaldian, astelehenean, Oñatin. JOKIN ETXEBARRIA

**HEZKUNTZA** > MU-REN IKASTURTE AURKEZPENA

# Mondragon Unibertsitateak ere hasi du ikasturte berria

Inaxio Oliveriren azken ikasturte hasiera da; Josu Zabala izango da hurrengo errektorea

2007. urtean 10 urte egingo ditu Mondragon Unibertsitateak, eta hazten doa oraindik

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI
Oñatiko Santa Ana aretoan egin du astelehenean Mondragon Unibertsitateak ikastaro berriaren aurkezpena. Hantxe izan ziren, besteak beste, Jesus Goienetxe, Mondragon Unibertsitateko gerentea; Inaxio Oliveri, MUko errektorea; Juan Jose Ibarretxe, lehendakaria; Joxe Juan Gonzalez Txabarri, diputatu nagusia; Tontxu Campos, Hezkuntza sailburua; eta Juan Ignazio Perez eta Jaime Oraa, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak.

**IKASLEEN %98A LANEAN**

Jesus Goienetxek, MUko gerenteak, azken ikasturtearen memoria aurkeztuz hasi zuten ekitaldi ofiziala. Goienetxek aipatu zuen urtetik urtera gorantz doala unibertsitatea eta, Egailanen azterketa baten arabera, ikasleen %98k lanean jardun dutela edo jarduten dutela.

Mondragon Unibertsitatea 1997an eratu zen unibertsitate moduan, nahiz eta haren hiru fakultateak lehenagotik ari ziren lanean, banaka. Hasieran, 12 diplomatura eta 2.600 ikasle zituen. Orain, 4.073 ikaslek ikasten duten Mondragon Unibertsitatean, graduko eta graduatu ondoko prestakuntzan. Ikasle kopurua ez ezik, eskaintza ere handitu du MUk. Egun, lehen eta bigarren zikloetako 24 titulazio eskaintzen ditu, ingeniaritzari, enpresa ikasketei eta hezkuntzari lotuta. 29 graduatu ondoko titulu eta beste bost doktoretza ere eskaintzen ditu.

**JOSU ZABALA, ERREKTORE BERRIA**

Inaxio Oliveri da MUko errektorea azken bost urtetan, baina otsailean utziko du kargu hori. Josu Zabalak, Fagor Etxetresna Elektrikoen negozioaren gerenteak, hartuko du bere tokia, eta azarotik otsailera, elkarlanean ibiliko dira. Oliverik unibertsitatearen geroaz hitz egin zuen eta, horrekin batera, ohartarazi zuen unibertsitateak berritze prozesu sakon baten sartuta daudela, gizarte berriari aurre egiteko.

**NAGUSIAK**

## Aita Mennik egoitza bat kudeatuko du Bilbon

Txurdinaga auzoan dago, eta oraingo astean inauguratu dute arduradunek

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE
Arrasateko Aita Menni ospitaleak Txurdinagabarri eguneko zentroa kudeatuko du Bilbon mendekotasunak dituzten adadetuendako, eta astelehenean inauguratu zuten. Aita Mennik Bizkaian duen mota horretako hirugarren zentroa da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaiko Bideak elkarteak Aita Menni Zerbitzu Sozialei adjudikatu dio zentro berriko kudeaketa eta mantenua. 228 ohe ditu, eta eguneko zentro bezala erabiltzeko 100 lagunendako lekua.

**EAE OSOAN**

Aita Mennik, psikogeriatrian aditu moduan, hainbat zentro eramaten ditu EAEn, besteak beste Donostian, Durangon eta Deustuan.

> PROTESTA

## Elkarretaratzea deitu du ELAk Arrasateko Eroskin, eguerdian

Protesta deitu du ELAk gaur Arrasateko Hiper Eroskin. Tuterako Eroskiko langileen egoera salatu eta haiei elkartasuna adieraztea dute helburu. ELAko ordezkarien esanetan, Eroskik hitzarmena sinatu du Estatu osorako eta, horrek, "ondorio sozial eta laboral ezkorrak eragin ditu Euskal Herriko langileengan". Besteak beste, Tuteran indarrean zegoen hitzarmen propioa balio barik geratuko da. Eroskik, berriz, esan du Tuterako grebak oinarri politikoak dituela.



Chevrolet Captiva
Europarako esklusiboki 5 edo 7 eserleku dituzten bertsioak. 150 ZPko diesela eta 136 eta 230 ZPko gasolinazko motorrak.
Captiva gama 23.330€-tik hasita.
Giauto 902 345 225
Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 88 51 50
clientes@giauto.es
www.chevrolet.es
Chevrolet gehiago da
CHEVROLET
Prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi 5 eserlekuko ibilgailuentzat.(BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta gasolinazko Prever Plana barne).
Hil amaiera arte baliagarria. Kontsumo mistoa (l/100 km); 7,4-11,5. CO2 emisioak (g/km): 197-264. Hiru urteko bermea edo 100.000 km bermeen legea aplikatzeko kalterik gabe: 23/2003.

**ARRASATE** > AUTOBIDEKO LEHERKETA BATEK KALTEAK EGIN DITU ZIGORROLAN

# "Leherketa eta gero, harri mordoa erori da"

Autobideko lanetan egindako leherketa baten ondorioz, harri mordoa erori zen atzo eguerdian Zigorrola auzora; hiru zauritu arin izan dira

**I.B./X.U.** > ARRASATE

Atzo, martitzena, susto itzela hartu zuten Musakolako auzotarrek. 13:00ak baino apur bat lehenago, autobideko lanetan leherketa bat egin zuten, eta izugarrizko harri zaparrada erori zen auzora. Meneta taberna ingurutik San Isidro zubira arte eta kiroldegiko aparkalekua igarota Santa Teresa auzora arte heldu ziren harriak. Leherketak hiru zauritu arin, etxe askotako teilak apurtu, auto eta fatxadatan kalteak eta Egia iturgintza dendako paretan zulo handia eragin zituen.

Hainbat auzotarrek GOIENKARIAri esandakoaren arabera, beste batzuetan ere leherketak egin dituzte, zarata handiagokoak, baina atzokoa "beldurgarria" izan zen. "Ez dakigu zelan ez den gauza larriagorik gertatu. Gainera, leherketak beti eguerdi partean egiten dituzte, kalean jende gehien dagoenean".

**BIDEGIK IKERTU EGINGO DU**

Lehenengo azterketaren arabera, lurra uste baino ahulagoa zelako gertatu da ezbeharra. Hala jakinarazi du autobideko lanen ardura duen Bidegi erakundeak. Ikerketak jarraitzen duen bitartean leherketa gehiago egingo ez dituztela gaineratu dute.







**ZULOAK** Harriek kalte dezente eragin zituzten autoetan eta dendetan. XABI URTZELAI

BERTAN JASOTAKOAK

**Haritz Gorroño**
LANGILEA

### "Eskerrak umeak harrapatu ez dituen"

Eztanda entzutearekin bat airean gauza mordo bat ikusi ditugu. Hasieran pentsatu dugu txoriak-edo zirela, eta harriak ziren. Hamar minutu geroago umeak eskolatik irtetekoak ziren...

**Zigor Varona**
LANGILEA

### "Etxea dardarka zegoela ohartu naiz"

Etxean nengoen telebista ikusten eta igarri dut etxea dardarka zegoela. Kanpora atera eta auzotar guztiak balkoietan zeuden eta teilatuetan harri piloa ikusi ditut. Izugarria izan da.

**Angel Sagasta**
ERRETIRATUA

### "Ezin izan naiz teilatupera sartu"

Kaletik behera nentorrela eztanda handia eta teilatuetan kristoren zarata entzun dut. Saiatu naiz teilatupean babesten, baina ezin dut lasterka egin, eta harri batek besoan jo nau.

**HISPANITATEAREN EGUNA** > ASKATASUNAREN IRITZIA

## Guardia Zibila joatea eskatu du Askatasunak, prozesu demokratikoa bideratzeko

Martitzenean prentsaurrekoa egin zuten eta Oñatiko koartel aurrean kontzentrazioa deitu dute eguenerako

**L.K.** > ARRASATE

Debagoieneko Askatasunak Guardia Zibilak Euskal Herrian jarraitzea salatu du. Hori egin du atzo, martitzena, egin zuten prentsaurreko baten bidez, Arrasateko Arrano elkartean. "Errepresioaren aurkako taldeak, indar okupatzaile hauek Euskal Herrian egiten ari diren zapalkuntza salatu nahi du", dira Askatasunaren hitzak.

Era berean, Espainiako gobernuari eskatu diote Guardia Zibila Euskal Herritik ken dezala, "baldintza duinetan egin beharreko prozesu demokratiko bat eskatzeko", euren esanetan.

Eskaera horiek egin dituzte urriaren 12an, Pilareko Amaren eguna, Hispanitatearen Eguna ospatzen delako. Pilareko Ama Guardia Zibilaren zaindaria da.

Salaketa horiek egiteaz gain, urriaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Guardia Zibilaren kuartel parean kontzentrazioa egitera deitzen du Askatasunak.

**DESMILITARIZAZIOAREN ESKE**

Euskal Herrian "militarizazio egoera larria" dagoela salatu dute, "Frantziako eta Espainiako estatuen politika errepresibo gogorrak" direla eta. Honakoa proposatu dute: "Euskal Herriak behar duen desmilitarizazio prozesuan honako tarteko urrats hauek beharrezko ikusten ditugu: atzerriko indar armatuen koarteleratzea, Espainiako eta Frantziako indar armatu eta polizialen aldentze graduala Euskal Herritik, eta azpiegitura polizial eta militarren birmoldaketa edo desagertzea".

Askatasunaren iritziz, "prozesu demokratikoa desmilitarizazio prozesu batekin babestu eta bermatu behar dugu. Konponbide prozesua soilik horrela burutu daiteke modu libre batez".

**OSASUNA** > GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA

## Gripearen aurkako txertoa har daiteke astelehenetik aurrera

Txertoa hartu behar lukete 65 urtetik gorako guztiek eta gaixotasun kronikoak –asma, diabetesa...– dituzten adin txikikoek

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Astelehenean, urriak 16, hasten da aurtengo gripearen aurkako kanpaina Debagoienean. Txertoa hartzeko aukera dago egun horretan hasi eta azaroaren 30era bitartean. Kanpaina astelehenean aurkeztu zuen Osasun sailak.

Aurtengo birusa ez da apartekoa, eta kanpainak berak ere ohiko ezaugarriak ditu. Hala, batez ere, 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoak –asma, diabetesa...– dituzten adin txikikoei gomendatzen diete txertoa hartzea. Horretarako, anbulatoriora edo herriko medikuari deitu behar zaio eta norberari dagokion erizainarekin edo familiamedikuarekin txanda hartzea.

Aurreikusten da lehenengo gripe kasuak hemendik 8-10 bat asteren epean hasiko direla agertzen. Txertoak gripearen aurkako ia erabateko babesa ematen du kasu gehienetan.

**AUZOETARA**

Herri bakoitzeko osasun zerbitzuak antolatzen ari dira arriskupopulazio guztiari txertoa ematеko. Hala, erraztasunak emateko, herri gehienetan, baserri auzoetara eta auzoetako edadetuen egoitzetara joaten dira erizainak.

Besteak beste, Arrasateko anbulatoriotik San Andresera joango dira hilaren 23an, Abaroara hilaren 24an, Uribarrira 25ean, Santa Marinara 26an eta Musakola auzora, azkenik, hilaren 27an, 12:00etatik 13:00etara. Oñatin, Zubillagara joango dira egun baten, eta Olabarrietara beste baten. Bergaran ere, auzoetako edadetuengana joango dira erizainak.

**GOMENDIOAK**

Txertoa da, gaur egun, gripearen aurkako neurri eraginkorrena. Behin gaixotasuna harrapatuta, ez dago aurkako botika jakin bat. Atseden hartu, ohean egon, ur eta zuku asko edan eta sukarra jaisteko botikak hartu behar dira. Kasu gehienetan, astebetean osatzen da. Egoera larritu egiten bada, lehenbailehen familia-medikuarengana jo behar da.

### Gutxienez, 65 urtetik gorakoen %70i

Debagoieneko osasun arduradunek urtetik urtera esaten dute debagoiendarrak txertoa hartzeko kontzientziatuta daudela eta kanpainak arrakasta izaten duela beti. Hala ere, beti igo daiteke txertoa hartzen dutenen kopurua.

Euskadi osoan, esaterako, helburua da egoitzatan dauden edadetuen %95i ematea txertoa; EAEko 65 urtetik gorako biztanle guztien %70i ere, gutxienez; eta gainerako arrisku-taldeetan, ahalik eta lagun gehienei ematea. Txertoa hartuz gero, 65 urtetik gorakoen artean gripea edo neumoniagatik ingresatzeko arriskua %70 murrizten da.

# Katalunia-Euskadi...

**Jokin Larrañaga**
Bergara

Sekulakoak eta bi entzun behar izan ditugu Kataluniak eta Euskadik domekan Camp Nou zelaian jokatu zuten partiduaren harira. Sekulakoak, betikoen aho edo hitzetatik.

Futbol partidua izan zen ikusgarria, gol bikain eta guzti. Pena Euskadik irabazi ez izana. Baina, askok azpimarratu duten moduan, hori ez da hain garrantzitsua adiskidantzazko partidu batean. Askoz ere garrantzitsuagoa da, nire uste, gaur egun Espainia osatzen duten bi herrik, bi naziok, beren futbol selekzioa aldarrikatu zutela, hau da, txapelketa ofizialetan Espainia izenarekin izan beharrean, Euskadirekin edo Kataluniarekin jokatzeko aukera izan nahi dutela, gaur egun ukatzen zaiena. Eta jokalariek ere hori aldarrikatu zuten, beren jokoarekin, baina baita beren ekintzekin: ofizialtasuna esplizituki eskatuz, komunikatu baten eta pankarta baten bidez.

Beste aldean, betikoak: beren batasuna hausten, beren mahuka amaitzen ikusten dutenak: De la Morena eta Ser kateko *inpresentable* guztiak, *El Mundo, La Razon, ABC* edota COPEko iritzi emaile *fatxorro* guztiak... Bai, *Vamos con la roja, A por ellos, Somos los mejores*... eta halakoak oihukatzen dituzten horiek; beste batzuk barregarri uzten saiatzen diren horiek..., abertzale espainiarrak ez direla dioten horiek.

Eta hori dena gutxi balitz, España y Libertad taldea berriro ere: oraingoan Euskadiko eta Kataluniako futbol federazioak eta Bartzelona taldea salatu ditu, Camp Noun domekan "oihu xenofoboak eta arrazistak" entzun zirela aitzakia hartuz. Mesedez! Hobe lukete Madrileko Atletico-ren futbol zelaian, Vicente Calderonen, euskal talderen batek jokatzen duen bakoitzean entzuten direnak salatuko balituzte. Horiek bai horiek oihu xenofoboak.

Zergatik ez digute uzten bakean? Eta zergatik ez diote aukerarik ematen nahi duenari nahi duenarekin jokatzeko? Diote Euskadik edo Kataluniak txapelketa ofizialak jokatu nahi badituzte, haien liga propioa eduki beharko dutela. Eta? Bada, sor ditzatela liga horiek. Diote, era berean, Realak, Alavesek, Athletic-ek edo Osasunak liga horretan jokatu beharko dutela. Zergatik? Hori taldeei eurei galdetu beharko diote, ezta? Bestalde, Espainiako Futbol Liga Profesionalari ez al zaio interesatzen talde horiek euren ligan edukitzea? Badira, nazio, estatu edo herri bateko kirol taldeak, eurena ez den ligan dihardutenak: Monakok Frantziako futbol ligan dihardu; Andorrak, Espainiakoan; Torontok, Amerikako Estatu Batuetako saskibaloi ligan, NBAn, dihardu. Hortaz?

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

# Zahar berri

**Dina Mujika** (Antzuolako alkate ordea, Udalaren izenean)
Antzuola

Inuzenteak gu. Izan ere, pentsatzen genuen udal ordezkariak mehatxatu, salatu edota iraintzen fatxadak margotzea, garai bateko ekintzak zirela. Baina, zoritxarrez, ez da horrela. Joan zen asteko ostegun eta ostiral bitarteko gauean, herri honetako alkatearena den enpresa eta baita etxearen fatxada ere margotuta azaldu zirelako, herri honek aukeratutako ordezkaria, bai era pertsonalean eta baita politikoan ere lintxatzeko asmoz. Arrazoia? Udal honek Sagastin zerbitzu sozial eta kulturalak izango dituen gizartetxea, eta 5.000 metro koadroko parkea eraikitzeko udal ordezkariek adostasunez bere momentuan hartutako erabakia.

Udal ordezkariei egiten zaien mehatxu-ekintza koldar horren aurrean, eta gogoratuz, gainera, ez dela lehenengoa eta ezta ere gure ustez azkena izango, bertan ditugulako 2007ko udaberrian izango diren Udal hauteskundeak, zera adierazi eta onartu nahi dugu:

1. Jose Anjel Zabalo (EAJ) ez ezik, baita Elbira Kortajarena (PSE-EE), Dina Mujika (EA), Jose Inazio Beltran, Iñigo Ramirez de Okariz eta Basili Ormazabal (EAJ) erabaki honen erantzule politikoak ere badirela.

2. Sagastin gizartetxe bat eraikitzea, Udalbatzan gauden ordezkari legitimoen bi herenak adostuta eta erabakitakoa dela. Hau da, Euskadiko Sozialisten Alderdiko, Eusko Alkartasuneko eta Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak onartutakoa, hain zuzen ere.

3. Udalbatza honek nahi beste legitimazio, kudeaketa gaitasun eta Antzuolako errealitate sozialaren ezagutza duela, eta demagogia eta kontsulta paralelorik gabe herrian sortzen diren gai eta arazoei aurre egiteko gai dela.

4. Sagasti parkearen aldeko taldeari exijitzen diogu, mehatxuan oinarritutako metodoak erabiltzea deitoratuz, denuntzia dezala publikoki prozedura horiek.

5. Jazarpen gertaera hauek zabalagoak eta orokorragoak diren ekintza planifikatuen emaitzak direla ere pentsatzen dugu. Hau guztiau, bai erakunde publiko eta baita udal ordezkariak ere deslegitimatu nahian.

6. Antzuolako herritarrek, lau urtero gertatzen den bezala, jakinduriaz ebaluatuko dutela Udalbatza honen kudeaketa orokorra; hau da, saritzen edota zigortzen euren botoen bitartez.

Baita ere azpimarratu nahi dugu, proiektu honekin lanean jarraitzeko asmoa dugula. Beraz, espero dugu Antzuolako Udalak jakinarazi nahi duen idatzi honen ondorioz, polemika alderdikoi eta zentzugabe honen azkena izango dela.

Bukatzen dugu gogoratzen proiektu hau herriarentzat onena izan asmoz, hasiera batetik interesa eta laguntza eman nahi izan zutenen emaitza dela. Eta uste dugu borondate oneko jende guzti horri ez diogula huts egin.

# Pintadekin zerikusirik ez

**Xabier Legorburu** (Sagastin Parkearen Aldeko Plataformaren izenean)
Antzuola

Azken egunotan Antzuolan azaldu diren pintaden inguruan, Sagastin Parkearen Aldeko Plataformak jakinarazi nahi du:

1. Plataformak ez du zerikusirik aipatutako pintadekin.

2. Plataformak orain arte burutu dituen ekintza guztiak sinatu ditu eta hemendik aurrera burutzen dituenak ere sinatuko ditu.

# OHARRA

GOIENKARIA gaur, eguaztena, argitaratu izanaren arrazoia da bihar jai eguna dela eta gure irakurle zareten askok eta askok jai izango duzuela egubakoitzean ere, hau da, zubi luzea izango duzuela. Horregatik, egoki ikusi dugu argitaratze eguna aurreratu eta jai egunen aurretik banatzea oraingo astekoa. Jakin ezazue, bestalde, *Astelehenekeko Goienkaria* betiko moduan argitaratuko dela hurrengo astelehenean ere, hilaren 16an.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

**Egin zaitez harpidedun eta 2005ean etxean jasoko duzu *Asteleheneko Goienkaria.* Dei bat egin eta kitto!**



24 €

**Harpidedun egiteko:**
**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO Goienkaria
**astelehenean, aste bukaera osoa**

Gatazkak etikoki konpontzeko sortu da Baketik. Arantzazun du egoitza eta hantxe egingo dute zentroaren aurkezpen ofiziala zapatuan, urriaren 14an. 11:30ean izango da ekitaldia. Inaugurazioko hitzaldia egingo du Federico Mayor Zaragozak, Unescoko zuzendari orokorra izandakoak. Ibarretxe eta gizarte eragileetako kideak ere etortzekoak dira.

**Jonan Fernandez** > Baketik

# "Erakutsi nahi dugu etikaren oinarriek garrantzia dutela gatazka konpontzeko"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

**Eskualdez eskualde aurkeztuko dituzte Baketik fundazioaren helburuak eta lan ildoak, eta urrian Debagoienan azalduko dituzte. Arrasateko Monterron jauregian egingo dute aurkezpena hurrengo eguaztenean, hilak 19, 19:00etan. Egingo dituzten ikastaroen adibide praktikoak ere erakutsiko dituzte. Hantxe izango da Jonan Fernandez.**


Arantzazuko Gandiaga Topagunean dihardu orain Jonan Fernandezek, Baketik-en bulegoan. O.E.

**Zer da Baketik?**

Bake zentro bat da, Arantzazun sortzen dena. Hemengo frantziskotarrek aspaldititik zuten ametsa Arantzazun bakearen kontzeptuaren inguruan zerbait egiteko, eta beraiek bultzada hori eman dutelako sortu da Baketik.

**Ze berezitasun izango ditu zentro horrek?**

Hemendik landuko da gatazken alde etikoa. Hau da, gatazka da gure bizitzan zehar dugun fenomeno inportanteena. Momentu guztietan, jaiotzetik hil arte, gatazkak ditugu familian, lan arloan, gizartean edo politikan. Jakiten badugu gatazkak etikoki lantzen, aukera asko ditugu ondo bizitzeko eta elkarbizitza hobea izateko. Bestela, gatazka suntsitzaileak izango ditugu.

**Zer egingo duzue bake zentro horretan?**

Bitartekoak eman, oinarrizko dokumentazioa, informazioa, eman gatazkak etikoki lantzeko.

**Zergatik orain horrenbeste garrantzia etikari? Etika faltagatik sortu dira orain arteko gatazkak?**

Etika bigarren maila baten utzi dugu beti. Seguru aski, behar dugun iraultza edo aldaketa da etikaren ikuspuntua lehen mailan jartzea eta jakitea giza duintasunaren errespetua dela lehena, eta hortik aurrera, beste dena. Akatsa da historian zehar giza duintasunaren aurretik edozer gauza jarri izana: dirua, agintea edo helburu bat. Baina bideak alderantzizkoa izan behar du: lehenengo, giza duintasunaren errespetua.

**Nola lana egingo du Baketik zentroak?**

Hainbat ekintza egingo ditu, baina erdia izango da ikastaroak. Pentsa dezakegu Arantzazun gatazkak etikoki nola konpondu erakusten duen eskola bat zabaldu dutela. Hilabete oro egongo dira ikastaroak eta lehenengoak Debagoienerako prestatutakoak izango dira.

**Norendako prestatu dituzue ikastaroak?**

Edozeinendako. Ez dugu nahi pentsatzea, inondik inora ere, Arantzazuko zentroa adituendako denik. Eguneroko bizitzan sortzen diren gatazkei aurre egiteko bitartekoak behar ditugu, eta guztiendako dira ikastaro horiek. Bereziki egokiak dira, adibidez, kazetariendako, irakasleendako, alkate eta zinegotziendako, unibertsitateko ikasleendako edo enpresa munduan lan egiten dutenendako.

**Zenbat zarete Baketik-en?**

Egoitza egokia badugu, baina poliki-poliki joan behar gara. Bi lagun hasi gara lanean eta, gurekin batera, kolaboratzaile sare handi bat. Nahiko genuke proiektuak aurrera egin ahala lantaldea sendotzea.

ARANTZAZU

**"Pentsa dezakegu Arantzazun eskola bat zabaldu dutela gatazkak etikoki konpontzeko"**

ERRESPETUA

**"Giza duintasunaren errespetua, pertsona, da lehenengo, eta gero beste dena"**

ALDERDIEN MAHAIA

**"Alderdien mahaia martxan dagoen ekitaldi sinboliko bat egingo dute udazkenean"**

**Ze parte du elizak proiektu horretan?**

Frantziskotarrak bultzatzaileak izan dira, baina euren nahia izan da, hasieratik, erabateko autonomia ematea. Beraz, proiektua laikoa da, akonfesionala eta anitza. Frantziskotarrek fundazio bat sortu dute hau bultzatzeko, eta fundazio horrek uzten du zentroaren jarraipena eta kontrola 12 pertsonak osatzen duten kontseilu errektore baten. Frantziskotar bakarra dago kontseilu horretan; beste denak dira aniztasuna ordezkatzen duten kideak.

**Aurreko esperientziatik, zer ekarri duzu Baketik zentrora? Ze ekarpen egin diozu?**

Aurreko esperientzien jarraipena da oraingo hau. 20 urte egin ditut euskal gatazkarekin lotuta, nola edo hala, eta ikasi dudana eta ez dudana nirekin batera ekarri dut hona, eta espero dut zerbaiterako balio izatea.

**Ze ekarpen egingo dio Baketik-ek bakeari, beste elkarte edo fundazioek egin ez dutena?**

Baketik ez da gizarte mugimendu bat izango, eta ez da izango mobilizazioak egiten dituen elkarte bat. Dibulgazioa egingo du, eta horixe izango da bere ardatz nagusia. Munduan mota askotako bake zentruak daude eta, gure kasuan, etika da berezitasunik handiena. Guk planteatu nahi duguna da arazoa ez dela metodologia kontu bat bakarrik, baizik eta etikaren oinarriek garrantzia handia dutela gatazkaren konponketan.

**Etika moduko baloreak, ordea, apenas daude egun.**

Badaude oinarri batzuk gatazka suntsitzailea egiten dutenak edo ez, eta horiek landu behar ditugu. Adibidez, helburuak pertsonaren gainetik jartzen baditugu, gatazka suntsitzaile bihurtzeko aukerak handitu egiten dira. Galdetu behar duguna da zer den guretako lehena, eta guk planteatu nahi duguna da lehenengoa pertsona dela.

**Zuzenean hartuko du parte Baketik-ek bake prozesuan?**

Ez. Nahi dugu zeharka laguntzea berradiskidetzearen prozesuari. Orain aurre-adiskidetze fasean gaude; gero adiskidetzea etorriko da. Uste dut epe motz edo ertain batean adiskidetze fasea egingo dugula. Berradiskidetzea etorriko da gero, mugarik gabe. Hori prestatzea garrantzitsua da eta horretan lagundu nahi dugu.

**Hori lortzeko, hitz egin duzue alderdi politikoekin eta bestelako eragileekin?**

Maiatzaren 2tik gaude lanean eta ahal den gehienei azaldu diegu zer den hau. Zain gelditu dira guztiak eta urriaren 14tik aurrera ikusiko dute gure lana, orain arte azaldutakoa praktikan jartzen dugunean.

**Ze epe edo muga jarri dituzue?**

2008 baino lehenago 1.000 pertsonak parte hartzea antolatutako ikastaroetan.

**Noiz egingo dute alderdien mahaia?**

Udazkenean. Daturik ez dut, baina inpresioa dut ekitaldi sinboliko bat egongo dela alderdien mahaia martxan dagoela adierazteko, nahiz eta, hauteskundeak datozelako edo, prozesu hori atzeratu.

# Sistemas Prados

Otalora lizentziatua 12, behea
**ARRASATE**
943 79 83 07
e-maila: mondragon@sistemasprados.com
www.sistemasprados.com

# ZABALDU BERRIA!!!



## Informatika-Harware

**Banaketa, muntaketa eta ekipo informatikoen zerbitzu teknikoa**

- Ekipamendu informatikoak
- Ordenagailu eramangarriak
- TFT pantaila-plasma
- Inprimagailuak: laserra, tinta
- Sarea, komunikazioak eta interneta
- Hari gabeko sistemak
- Aholkularitza informatikoa
- Mantentze-kontratuak

## Informatika- Software

**Gestiorako softwarea: enpresak, ostalaritza eta komertzioa**

- Antibirusa
- Sistema eragileak
- Neurrira egindako programazioak
- Euskarri eta mantentzea

## Osagarriak

**Kutxa erregistratzaile, gestiorako ekipoak, informatika**

- Kontsumigarriak
- Faxa
- Paper-erroiluak
- Inprimagailuentzat tintak
- Etiketak

## Edozein negoziorako kutxa erregistratzaileak

## Gestiorako ekipoak

**TPV-ak- Komertzio, ostalaritza eta industriarentzat ukimen sistemak.**

- Ukimen-ekipoak
- Ukimen-pantailak
- Inpresorentzat tiketak
- Barra-kodeentzat irakurlea
- Barra-kodeentzat inprimagailu
- Txanponak gordetzeko kaxak
- Bezero bisoreak
- Etiketak jartzeko makinak
- Baskula
- Fakturak egiteko makina




CASIO · OPTIMA GERMANY · acer · SAMSUNG · EPSON · Metrologic
sage SP · astarte informática s.l. · intel · TOSHIBA · METO · hp invent










**> ARRASATE** Biteriko aparkalekua inauguratuko dute azaroaren 4an **> 12**

**> BERGARA** Agorrosinek 2.000 abonatu berri egin ditu inauguratu ostean **> 14**

**> ARETXABALETA** Italiako jaialdi batera eramango dute film laburra Aratzekoek **> 18**

**> ESKORIATZA** Santa Marina inguruan azterketa arkeologikoak egingo dituzte **> 20**


**ARRASATE** > GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

# Aste Santutik uda bitartean sartuko dira maizter berriak Garaiara

**BI ERAIKIN EGITEN**
Bi eraikinok 10.500 metro koadro dituzte eta haien %30 dute erreserbatuta

**EDERTEK ERE BAI**
Horrez gainera, MCCren Edertek zentro berriak han izango du egoitza, Gabonetarako



Eraikinak zela geratuko diren erakusten duen maketa.

**AZPIEGITURAK** Aurreneko fasean 200.000 m²-ri dagozkion azpiegitura lanak egin dituzte; baita bi eraikin nagusiak ere; guztia ere ikerketa eta berrikuntzarako. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Arrasatetik Garagartzara bidean bistan dira Garaiaren aurreneko bi eraikinak. Garaiako kudeatzaile Andoni Gartziak esan digunez Gabonetatik martxora bitartean bukatuko dituzte eraikitzen. Hori horrela, Aste Santutik uda bitartean hasiko dira maizter berriak sartzen: "Ikerketa zentroak eta laborategiak izango dira; eraikinen, %30a dugu erreserbatuta. 10.500 metro karratuko bi eraikin dira. Biak lotuta daude airetik doan pasabide batekin. Bestalde, Garaiak ere zerbitzu batzuk eraikinotan emango ditu. Horrez gainera, ipiniko dugu auditoriuma, enpresendako bilera gelak… Eta lehenengo eraikinean prototipoak egiteko tailerrerako 1.400 metro koadro prest ditugu. Pentsatzen dugu, baita ere, MCCko promozio industrialeko sail berriaren bulegoak bertan kokatzea".

**'ZINTZILIK' DAUDEN ERAIKINAK**
Eraikin horiek bereziak direla gaineratu digu Gartziak: "Errepidearen ondoan dagoena enblematikoa da. Dago eutsita barruan dituen kable batzuekin, zubi erraldoiak moduan. Badirudi zintzilik dagoela. Horrez gainera, arkitektoak (Angel de la Hoz, Donostiako epaitegia egin zuena) bereziki zaindu du egitura, eraikinak eguzkiaren berotasuna manten dezan. Eta erdian ipini dio aire-kamara".

**1. FASEAN: EDERTEK**
Garaiak, guztira, izango du 450.000 m²-ko azalera. Eta egiten dabiltzan lehenengo zatiak ditu 200.000 m². Dagoeneko 25 hilabete daramatzate lanean: "Handia da guztia, eta faseka hasi gara lanak egiten. Lehenengoan biribilgunea, azpiegiturak, aurreneko eraikinak eta Edertek kooperatibaren zentro teknologiko berria eraikitzen dabiltza. Aurtengo Gabonetarako bukatuta izango da Edertek. 40 bat lagun lanean ibiliko dira; hiru urtera begira, berriz, 55-60 pertsona inguru. Automozioan material berriekin ikertuko dute".

**BIGARREN FASEA**
Datorren urtean, berriz, bigarren fasearekin hasiko dira: "Garagartzako konexioa egingo dugu (Ibarreta gainetik bide bat Garagartzarekin egon dadin konektatuta). Orain, berriz, falta zaigu Gau-Txori pareko biribilgunea bukatzea. Erdia eginda utzi dugu, eta beste erdia egiteko Diputazioarekin ados ipini behar dugu, zirkulazioan ahalik eta eragozpenik txikiena sortzeko. Horrekin batera, saneamendua lotu behar dugu kolektorearekin. Bestalde, LKSk 3.000 m²-ko eraikina egingo du egoitza nagusi izateko eta han ikerketak eta hainbat negozio abiaraziko ditu. Datorren urteko udan hasi nahi dituzte lanak. 2008ko udan han egotea nahi dute".

Bukatu aurretik, berrikuntzak enpresendako duen garrantzia azpimarratu gura izan du Andoni Gartziak: "Berrikuntzan ez badugu ahalegina egiten, gure oinarriak motz geratuko dira. Lanpostuak sortu behar dira berrikuntzaren inguruan, Ezinbestekoa da hori, orain dauden lanpostuak mantentzeko".

**Andoni Gartzia** > Garaia Berrikuntza Guneko kudeatzailea

## "Lortu dugu 51,5 milioiko laguntzak EAEko parkeetarako"



U.M.

**U.M.** > ARRASATE
**Andoni Gartziak, Garaiaren kudeatzaileak, Debagoienerako duen garrantzia nabarmendu digu:**

**Zein da helburua?**
Gure ibarra erakargarri izan behar da enpresak hemen egon daitezen. Garaian gura dugu izan enpresa horien elkargunea, lankidetzarako gunea eta berrikuntzarako gunea. Zelanbait esateko, Garaiatik gabiltza *akuilua* sartzen berrikuntzaren garrantziaz enpresei ohartarazteko. Horrez gainera, zientzia, teknologia eta berrikuntza gizarteratzea ere badugu helburu.

**EAEko Parke Teknologikoko kide da Garaia, ezta?**
Bai; eta Estatuko Teknologi eta Zientzia Parkekoa eta munduko elkartekoa ere bai. Are gehiago, hurrengo urteko urrian Estatuko elkartearen nazioarteko kongresua hemen egitea erabaki dugu. Orain dela astebete eman digute baimena. Ekimen oso garrantzitsua izango da. Momentu polita izango da Garaia munduari zabaltzeko.

Bestalde, esan beharra dago lortu dugula Estatuan 51,5 milioi euroko laguntzak EAEko parkeetarako. Horietatik 14 milioi euro izango dira ibarreko proiektuendako.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 12 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 13 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Zapatua, 14 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Domeka, 15 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 16 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 17 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 18 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 12 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 13 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Zapatua, 14 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 15 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 16 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 17 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 18 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 12 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 13 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Zapatua, 14 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 15 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 16 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 17 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 18 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 12 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 13 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Zapatua, 14 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 15 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 16 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 17 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 18 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Eguena, 12**
Bezperakoarekin konparatuta, egoera egonkortu egingo da; baina, tenperaturak jaitsi egingo dira, 16-17 graduren bueltan ibiliko dira.



**Egubakoitza, 13**
Hobetzeko joerak segituko du eta ostarte handiak ikusiko ditugu. Gainera, tenperaturak bezperakoak baino epelxeagoak izango dira.

### EUSKAL HERRIAN

Bihar, eguena, apurtxo bat egonkortuko da eguraldia, eguaztenekoarekin alderatuta. Eta horixe izango da jarraituko duen bidea, izan ere, bariku, zapatu eta domekan antzerako eguraldia egingo du: lainoak eta ostarteak tartekatuz. Tenperaturak berdintsu, asteburuan.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Egubakoitza, 6 — **10 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 8 — **28 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **35,7 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Martitzena, 3 | 20 ºC | 14 ºC | 11,5 l/m² |
| Eguaztena, 4 | 20 ºC | 11 ºC | 15,5 l/m² |
| Eguena, 5 | 20 ºC | 12 ºC | - l/m² |
| Egubakoitza, 6 | 24 ºC | 10 ºC | 6,9 l/m² |
| Zapatua, 7 | 16 ºC | 16 ºC | 0,4 l/m² |
| Domeka, 8 | 28 ºC | 13 ºC | 1,4 l/m² |
| Astelehena, 9 | 28 ºC | 14 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA URRIAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 14 | 22 | 30 | 7 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Portaloia herri ekimenaren batzarra**
Portaloia herri ekimenak batzarra egingo du gaur, eguaztena, Irati elkartean, 19:30ean.

OÑATI
**> IT txartela ateratzeko aukera dago**
Informazio-teknologien erabiltzailearen txartela ateratzeko azterketa izango da gaur, eguaztena, KZgunean, 11:00-13:00 edo 16:00-18:00 ordutegietan.

BERGARA
**> Taila ikastaroa hasiko da azaroaren 8an**
Bergarako taila elkarteak ikastaroa antolatu du, eta azaroaren 8an hasiko da. Parte hartzeko, euren egoitzara agertu besterik ez dago, Zabalotegiko dorretxean, 18:00etan. Bereziki gazteei dei egiten diete animatzeko.

BERGARA
**> 1933an jaiotakoek bazkaria izango dute**
33an jaiotakoek batera bazkalduko dute azaroaren 12an Zumelagan. Izenematea zabalik dago Intxorta tabernan, eta 6 euro aurreratu behar da.

BERGARA
**> Santa Ana elkartearen afarian izenematea**
Santa Ana elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 21ean, 19:30ean, eta ahal duten guztiak joateko dei egiten dute. Geroko afarian izena emateko aukera dago hilaren 18ra arte.

ESKORIATZA
**> Umeendako capoeira ikastaroa antolatu dute**
Umeendako capoeira ikastaroa antolatu du Senzala Euskadi taldeak. Astelehen eta eguaztenetan dira eskolak, pilotalekuko gimnasioan, 19:00etatik 20:00etara. Izena emateko: *senzalaeuskadi@hotmail.com* edo 625 77 22 95; edo zuzenean bertara joan.

ELGETA
**> Merengue eta salsa ikastaroa egingo dute**
Merengue eta salsa dantzak ikasteko aukera izango da egubakoitzero 18:30ean bolatokian. Izenematea zabalik dago han bertan.

ARRASATE
**> 1955ean jaiotakoek bazkaria egingo dute**
55ean jaiotakoek batera bazkalduko dute hilaren 28an Sara jatetxean. Izena emateko, sartu 60 euro Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan, urriaren 20a baino lehen.

ARRASATE
**> Emakumeak eta inmigrazioa, berbagai**
*Inmigrazioa eta gizarte eskubideak. Analisi espezifikoa emakume etorkinen ikuspegitik* izeneko hitzaldia egingo du SOS Arrazakeriako Agustin Untzurruntzagak hilaren 18an, eguaztena, udal osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

BERGARA
**> Odol-ateratzeak egingo dituzte gaur**
Odola emateko aukera dago gaur, eguaztena, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

ANTZUOLA, ARAMAIO
**> 'Euskara ziberespazioan' delako ikastaroa**
*Euskara ziberespazioan* izeneko Internet ikastaroa emango dute hilaren 16an, astelehena, Aramaioko KZgunean, 10:00-12:00, eta hilaren 19an, eguena, Antzuolakoan, 11:00-13:00.

ARRASATE
**> Euskaraz hitz egiteko beldurraren gainean**
*Euskaraz hitz egiteko beldurra nola galdu* delako hitzaldia egingo du Jurgen Wolf Tandem fundazioko kideak hilaren 18an, eguaztena, Monterronen, 18:00etan.

BERGARA
**> Posta elektronikoaren gaineko ikastaroa**
*Komunikatu posta elektronikoaren bidez* delako ikastaroa emango dute hilaren 16an, astelehena, KZgunean, 16:00-18:00.

ARRASATE
**> 4. mailako euskara eskolak AEKn**
Aurten, 4. mailako euskara eskolak emango dituzte Erdu AEKn EGA edo titulu baliokidea dutenendako. Argibideak, 943 77 03 69 telefonoan edo *arrasate@aeknet.net* posta elektroniko helbidera mezua bidalita.

ESKORIATZA
**> Ludotekako ikasturte hasiera**
Ludotekako ikasturtea aurkezteko batzarra egingo dute hilaren 17an, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE
**> Gazteendako lau ikastaro antolatu ditu Udal Gazte sailak, eta izenematea zabalik dago**
Gazteei zuzendutako lau ikastaro antolatu dituzte Arrasaten, eta izenematea zabalik dago Gazte Bulegoan (943 77 00 65). Honakoak dira: bitxigintza (azaroaren 7tik aurrera), alboka (urriaren 21etik), sukaldaritza (azaroaren 7tik aurrera) eta gaur egungo dantzak (azaroaren 6an hasiko da).

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Zer deritzozu Eskoriatzan 30 bat etxebizitza tasatu egiteari?



**Celestino Beitia**
Langilea
Eskoriatza

Ez dakit zer esan. Nire semeak ez du premia handirik, nirea hartuko duelako. Etxe merkeagoak behar dira, jakina. Etxeak egitea ondo deritzot. Premia ez balego ere, egingo lituzkete.



**Ruben Duran**
Ikaslea
Eskoriatza

Ondo. Bizimodua oso garestia da eta gazteok laguntza behar dugu etxeak eskuratzeko. Kopurua apur bat txikia da, baina ea etorkizunean babes ofizialekoak edo tasatu gehiago egiten dituzten.



**Joxe Elortza**
Langilea
Eskoriatza

Oso ideia ona da. Premia handia dago. Gainera, gazteriak ez dauka nora joan. Kopuru bikoitza egingo balitz askoz hobeto, baina bada zerbait. Lekua aproposa da, kalekalean.



**Marije Diaz de Gereñu**
Langilea
Eskoriatza

Herri honetan etxe berriak behar dira, eta babes ofizialekoak badira hobeto, merkeagoak direlako. Baina arazoari konponbidea emateko tasatu batzuk egiten badituzte ere, ondo.



**Idoia Iñurrategi**
Langilea
Eskoriatza

Ideia ona da, baina ez dira nahikoa izango. Herrian eta inguruan premia handia dago, oso garestiak direlako. Hasteko modua da, eta gero halako gehiago egiten jarrai dezatela.

txaloak eta txistuak



X.U.

## Zebrabidea behar den moduan

Bergarako Espoloiko aldapan zebrabide berria jarri dute, eta oinezkoen pasabidea baranda txukunarekin egokitu. Herritarrek eskertuko dute neurri hori, behetik gora zetozen autoek ez zuten-eta tarte hori behar den moduan errespetatzen. Seguruago dago orain, hobeto.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 40

Xipizaro ludoteka Agorrosinen dago astelehenaz geroztik. 40 umerendako lekua dago, eta oraindik zabalik dago izenemate epea. Horretarako, Agorrosinera joatea besterik ez dago, eta bertan fitxa bete. 17:00etatik 20:00etara egongo da ludoteka zabalik.

usteak uste

**Mirari Altube**

## Hiru emakume eta arazo asko

Emakumeok sentikorragoak gara. Eta sentikortasun horren arabera egiten diogu aurre bizitzari. Hori diogu behintzat emakumeok. Ama izatearekin izango du zerikusia behar bada, edo gizonezkoen parera iristeko gogor lan egin beharrarekin bestela.

Sentikorragoak diodanean eguneroko txikikeriak arazo bihurtu aurretik konpontzeari deritzot; arazo bihurtu diren kateak zauri egin aurretik askatzeari, eta zauriak mimo handiz osatzeari. Emakumeok sentikorragoak gara, bai, baina batzuetan gogortu ere egiten gara. Eta gizonezkoen jokaerak hartzen ditugu arazorik txikienak ere konpontzeko.

Gure eskualdean hiru alkate ditugu emakumezkoak. Bederatzitik hiru. Eta orain Mankomunitateko presidentea ere bai. Hiru emakume eta arazo asko Debagoienean. Agintaldia laster bukatuko zaie, baina hemendik eta bukatu artean, eta beste batzuk etorri bitartean, emakumeak direla igarri gurako nuke.

Historiak berak diosku egoerarik latzenetan emakumeek jokatu duten papera. Sarritan isilean geratu den papera. Baina nik ez daukat zalantzarik, etorkizuna emakumeona da.

5 galdera...

# Jose Mari Lili

Garibaiko Kutxako arduraduna
Arrasate

**1. Gehienok uda ahaztuta daukagun arren, oporretan joateko dirua eskatu duenak gogoan izango ditu oraindik. Jende askok egiten du hori?**
Jendeak eskatzen ditu oporretan joateko kredituak, bai, baina ez da neurriz kanpoko zerbait izaten. Egia da ez dagoela horretarako ohitura handirik, baina geroago eta jende gehiagok eskatzen du dirua, bai.

**2. Geroago eta zor handiagoak ditugu banketxeekin, eta batzuk dagoeneko hasi dira arduratzen. Zuek?**
Gu ez gaude arduratuta, baina ez dugu gura neurrigabeko egoerarik. Geuri ere ez zaigu komeni egoerak txarrera egin eta jendea kredituak ordaintzeko gauza ez izatea.

**3. Orain momentuan, zenbaterainoko kredituak ematen dituzue?**
Kopuru zehatz bat baino, jendeak zer nolako beharra duen ikusten dugu, eta baita kreditua ordaintzeko zelako aukerak dituen ere. Azken batean, neurrirako trajea egiten dugula esango nuke, aholkulari lanak egiten ditugula, hain zuzen ere.

**4. Horrenbeste dira hilabete amaierara justu-justu iristen direnak?**
Badago jendea, bai. Askok gurasoen laguntzarekin egiten dute aurrera. 70 edo 80 milioitako etxebizitzan sartu aurretik pentsatu behar da horretan. Bizi ere egin behar da-eta.

**5. Eta, burtsan jokatzerako orduan, zelakoak gara debagoiendarrak?**
Batzuek burtsan inbertitu egiten dute, eta beste batzuek jokatu, hortxe dago aldea. Inbertitu egiten duenak ez du ausart jokatzen; interes txikia emango dion apustu segurua egiten du. Jokatu egiten duena da ausarta. Egia da gazteengan ez dagoela burtsan jokatzeko ohitura handirik. Egia da, baita ere, burtsan soberan dauden diruak jokatu behar direla, eta gazteek ez dutela horrelakorik.



**ZERBITZUAK** > MERKATARITZA TXIKIA ETA BITERIKO PARKINGA

# Azaroaren 4an inauguratuko dute parkinga

## Arrasateko baserriko produktuen azoka egun berean egingo dute, Biteri plazan

## Udalak merkataritza txikia eta Biteriko aparkalekua bultzatu gura ditu



**BITERI PLAZA** Plazako obrak urriaren 31n bukatuko dituzte; dagoeneko bistan dago plazaren itxura berria. USOA AGIRRE

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Kanpaina berezia abiarazi du Udalak Arrasateko merkataritza txikia eta Biteri aparkalekuaren erabilera bultzatzeko. "Helburua da jendea animatzea Arrasateko merkataritza txikian kontsumitu dezan eta era berean herritarren sentsibilizazioa piztea, jabetu daitezen merkataritza txikiak zelako garrantzia duen herriarendako: bizi-kalitatea ematen du zerbitzua eskaintzen duelako, kale-bizitza sortzen du…". Halaxe argitu digu Garapen Estrategikoaren Saileko teknikari Marga Garmendiak. Gaineratu digunez, Udala eta Ibai Arte merkatarien elkarteak zenbait batzar egin dituzte merkataritza txikiaren etorkizunarekin kezkatuta. Batzar horretan antolatu zuten merkataritza txikiaren jarraipena egiteko eta haren aldeko ekimenak bultzatzeko Jarraipen Mahaia. Eta mahai horretan erabaki zuten orain abiaraziko duten kanpaina egitea.

**INAUGURAZIOA ETA AZOKA**

Hala, kanpaina horren barruan bi hitzordu zehaztu dituzte, biak ala biak azaroaren 4rako. Izan ere, egun horretan inauguratuko dituzte Biteriko aparkalekua eta aparkaleku gaineko Biteri plaza.

Eta egun horretan, baita ere, egingo dute Arrasateko aurtengo baserriko produktuen azoka. Biteri plazako pergolan.

**BITERI APARKALEKUA**

Lur azpiko aparkalekuaren gainean, Udalak argitu digu asmoa dela Arrasatek duen aparkaleku berri hori bultzatzea: "Berria denez, promozio kanpaina egin gura dugu, ez besterik". Gaineratu digunez, orain bete-betea ez da egoten "oraindik obretan dabiltzalako".

**BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA**

Azokari dagokionez, berriz, Udal teknikariak esan digu Ibai Artek ere parte hartuko duela azoka horretan. Bestela, interesa duenak oraindik badu izena emateko aukera, urriaren 16ra arte. Horretarako Biztanleen Arreta Zerbitzura edo Udaleko Enplegu Zerbitzura jo behar da. Edo telefonoz deitu eta Marga Garmendiarengatik, Agurtzane Arregirengatik edo Ines Gonzalezengatik galdetu, 943 25 20 00 zenbakian. Azokaren leloa zera da: *Arrasateko baserriek eta merkataritza txikiak herriko kalitatea bermatzen dute.*



AMAGOIA LASAGABASTER

## Herriko andre nagusienak 100 urte bete zituen

Omenaldi hunkigarria egin zioten astelehenean Brigida Monjeri, 100 urte bete zituelako. Besteak beste, alkatea eta Diputazioko ordezkari Fernando Etxebarria izan ziren Iturbide egoitzan. Alkateak udaletxeko zilarrezko intsignia oparitu zion. Fernando Etxebarriak, berriz, plaka oroigarria. Eta Iturbideko egoitzako langileek lora sorta eman zioten. Brigida Monje 1906an jaio zen Valladoliden, San Roman de Ornija herrian; 16 urte zituela etorri zen Arrasatera, 1922an, Alfonso XIII.aren garaian.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Astelehenetik ostiralera
eguneko menua
Belun
Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

MENETA taberna
• Eguneroko menua
• Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
• Pintxoak
• Errazioak
Domeka gauetan sukaldea itxita
Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**MUSIKA** > BARRICADA TALDEAREN KONTZERTUA

# Rock-and-Roll eskaintza antzokira eramango dute

Zapaturako punta-puntako kontzertua antolatu dute Amaia Udal Antzokian. Barricada taldeak emanaldi akustikoa egingo du, 20:00etan



**KLASIKOAK** Txantreako Barricada taldeak kantu ezagunenak joko ditu. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Txantreako (Iruñea) Barricada taldea Espainiako Estatuko rock-and-rollaren erreferente garrantzitsuenetako bat da. *Noche de rock-and-roll, Barrio conflictivo* eta *No se que hacer contigo* diskoetako kantuak eresiak dira hainbat belaunaldiendako.

Euren ibilbidea jarraitu dute eta iaz hamaseigarren lan luzea kaleratu zuten, *Latidos y mordiscos* izenekoa. Lan horren bidez, euren kantu ezagunenak biluztu eta akustikoan eskaini zituzten. Rock-and-rollari eusten diote, jakina, baina kantu horiek soularekin eta bestelako sonoritateekin ere aberastu dituzte.

**LEHIAKETA** > ESKULTURA LEHIAKETA

# Gaur emango dute eskulturaren gaineko epaia

Gaur, eguaztena, batuko da epaimahaia. Garibain jarriko duten eskultura aukeratuko dute

**I.B.**> ARRASATE

Badira aste bi kooperatibismoarekin lotutako eskulturaren gaineko bozketa itxi zutela. Lehiaketan esku hartutako 11 artisten lanak egon ziren Monterronen ikusgai, eta Udalak herritarrei gustukoena aukeratzeko gonbitea egin zien.

Horren ostean, epaimahai jakin batek azkeneko erabakia hartu behar zuen, eta herritarren erabakia %30ean aintzat hartu behar zuen.

**BITERIREN ALDEKO AUKERA**

Bozketa hori abiarazi bezain laster, hainbat herritarrek Pedro Biteriren izena eta lana aldarrikatu zuten. Arrasateko filantropo horrek hezkuntzaren arloan lan handia egin zuen herrian. Horrez gain, Biteriren omenezko eskultura leku horretan, kooperatibismoaren gainekoa ipini gura duten lekuan, jarrita zegoen.

Horren harira, herritar talde horrek arrasatearrei eskatu zien Monterronen eskulturen gainean bozkatzeko orduan Biteri aukeratzeko. Deialdiak erantzun ona jaso zuen, eta Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi zuen kooperatibismoaren gaineko lanaz gain, Biterirena ere jarriko zutela.

**600 LAGUNEK BOZKATU DUTE**

Udaleko ordezkariek jakinarazi digutenez, 600 lagun joan dira bozkatzera. Horietatik 34 baliogabekoak dira, 16 urtetik gorako arrasatearrek bakarrik bozka zezaketelako. Eta Udalak aintzat hartu dituenen artean, badira Biteriren aldekoak ere. Azken horiek 74 dira.

Behin epaia eman ostean, artista aukeratuak bi hilabete izango ditu lana bukatzeko.





Altzariak
Diseinua
Apainketa

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA
Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

**ZERBITZUAK** > ASTELEHENEAN HILABETE AGORROSIN ZABALDU ZUTELA

# Agorrosinek 2.000 abonatu berri egin ditu inauguratu osteko lehen hiru asteotan

Lehenengo asteko egun bakar baten ia 1.000 erabiltzaile joan ziren instalazioetara

Xipizaro ludoteka berria Agorrosinen dago zabalik astelehenetik

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

2.000 abonatu berri egin ditu Agorrosinek lehen hiru asteotan. 3.000 bazkide ditu orain. Unai Asurmendi kirol teknikariaren arabera, "aurreikuspen guztiak gainditu ditugu. Lehen egunak zoratzeko modukoak izan dira; lehen asteko egun bakar baten ia 1.000 lagun etorri ziren. Oraindik ere lan pila bat dugu egiteko baina ari gara poliki-poliki guztiari neurria hartzen". Erabilerari dagokionez, "ikastaroetara edo yoga egitera bakarrik datozenak ere, adibidez, igerilekura joaten dira gero", dio Unai Asurmendik.



**FITNESS** Egubakoitzean zabaldu zuten fitness egiteko gimnasioa, aparailu berriekin. O.E.

**60 MENU EGUNERO**

Agorrosingo tabernan ere lanpetuta baina pozik dabiltza, harrera ona izan duelako. 50etik 60ra menu bitartean ematen dituzte egunero eta asteburuetan, gehiago. "Afaltzera ere etortzen da jendea, eguenetik zapatura bitartean batez ere. Asteburuetan, adibidez, 70 afari baino gehiago ematen ditugu, plater konbinatuak. Domeka iluntzean itxi egiten dugu sukaldea, geuk atseden hartzeko", kontatu digu Aitor Muruamendiaraz arduradunak.

Bestalde, Xipizaro ludoteka berriak astelehenean zabaldu ditu ateak Agorrosinen.

**KIROLA LABEGARAIETAN**

Labegaraietako kiroldegian kirol lehiakorrak egiten jarraituko dute: eskubaloia, saskibaloia, areto futbola, gimnasia erritmikoa eta tenisa, adibidez. Agorrosineko beste faseak bukatu ostean ere hantxe jarraituko du pista estaliak baina ikusteko dago gainerakoak non egongo diren.

> KULTURA

## Erretiratuen kultura aldia hasten da martitzenean

Bergarako erretiratuen elkarteak hamargarren kultura hamabostaldia antolatu du urriko bigarren erdirako. Antolatu dituzten ekitaldien artean daude, besteak beste: Bergarako auzoetara bisita autobusean, erretiratuek beraiek egindako eskulanen erakusketa, belaunaldien arteko xake lehiaketa, Gasteizera kultura bidaia, Oñatiko eta Bergarako erretiratuen abesbatzen musika emanaldia eta herri bazkaria.

Astelehenean kultura hamabostaldiko kartela aurkeztuko dute eta martitzenean da lehen ekitaldia: harreman pertsonalei buruzko hitzaldia. Ekitaldi gehienak San Joxepen izango dira eta denak daude gonbidatuta.

> ZERGAK

## Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko garaia

Udalak jakinarazi nahi die herritarrei ekonomi jardueren gaineko zergen erreziboak ordaintzeko epea zabalik dagoela. Azaroaren 11 arte da borondatezko epea. Epe hori amaitu ondoren, errekarguarekin kobratuko dute aipatutako zerga. Ordainketa helbideratuta dutenei banketxe bidez bidali eta kobratuko diete zerga, besteek edozein banketxetan edo udaletxean ordainduko dute.


Mujika gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak — Paper pintatuak
Moketa eta sintasola — Harea zorrotada
Iztuku esponjatua — Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 / 666 517 295

# 2007ko MARITXUTAN, ETXEAN NAHI DITUGU!





ERREFUXIATUAK


KEPA URRA


JON AGIRRE


JOSU URIBETXEBARRIA


LUIS MARI AZKARGORTA


PREMIN SANPEDRO


TXUS GOIKOETXEA


JOSU ARKAUZ


UNAI PAROT


ARATZ GOMEZ


JOSE I. GAZTAÑAGA


JESUS MARI ZABARTE


JOSE GABRIEL URIZAR

ARGAZKILARITZA > ERAKUSKETA

# Pedro Luis Ormazabalen argazki erakusketa Aroztegin

Azken 30 urteotan egindako lanaren gainbegiratua da erakusketa; urriaren 29ra arte dago zabalik

EDU MENDIBIL > BERGARA

Pedro Luis Ormazabal argazkilari bergararrak *Atzera begirakoa* erakusketa jarri du ikusgai Aroztegiko aretoan. Azken 30 urteotan egindako lanaren gainbegiratua da erakusketa. Ormazabalek 45 argazki inguru zintzilikatu ditu. Era berean, azkenaldian margotutako bost margolan jarri ditu Ormazabalek Aroztegin. "Pinturan hasi berria naiz", aitortzen digu.

Ormazabalek ibilbide luzea egin du argazkilaritzan, 1973 urtean Barrenkaleko Argazki dendan hasi zenetik. "Jose Ramon Murgoitiorekin batera jardun nuen eta handik 10 urtera Arrasaten hasi nintzen nire kabuz. 1990eko hamarkadaren hasieran, berriz, ordura arte egindako lana alde batera laga eta argazkilaritzan bide berriak ezagutzeko asmoz, Ameriketako Estatu Batuetara joan nintzen. Bizpahiru urte eman nituen; hango argazkilarien artean elkartruke aberatsa dago". Besteak beste, *transfer polaroid* izeneko teknika lantzeko aukera izan zuen: "Pelikula negatibo-positibo arteko bidean dagoenean, emultsioa, negatiboan, paper batera transferitzen da eta ondoren zapaldu papera eta poliki-poliki jasotzen da pelikularen plastikoa. Plasmatutako irudia grabazioa, argazkilaritza eta pelikularen arteko nahasketa da".



IBILBIDE LUZEA Ormazabal 1973an hasi zen argazkilaritzan lanean. ORMAZABAL

### MADRILEN LANEAN

Horrelako argazkiez gain, beste hainbat irudi daude Aroztegin, Euskal Herria, Ameriketako Estatu Batuak eta Madrilgo etapetakoak. Formatu ertaina zein handiko argazkiak, zuri-beltzean zein koloretan. Folklore eta jai giroko argazkiak, erretratuak edo paisaiak, ikus daitezke.

Gaur egun Madrilen bizi da Pedro Luis: "Ezkondu eta Madrilera etorri nintzen 1994an. Baina neure jatorria ez dut sekula ahaztu eta Labegaraietakoa naizenez, Urretxindorrak taldearen musika jarri nahi izan dut erakusketan. Baita nire lagun Juan Carlos Irizarren doinuak ere".

Erakusketa urriaren 29ra arte izango da zabalik.



HAINBAT GAI Baleteko zenbait irudi daude Aroztegin. ORMAZABAL

> EUSKARA

## 'Berriketan' egitasmoan ari direnek ikasturte hasierako afaria egingo dute urriaren 20an

Euskaldun zaharrak eta berriak batzen dituen *Berriketan* egitasmoak ekin dio ikasturte berriari. Hurrengo egubakoitzean, urriaren 20an, afaria egingo dute Oxirondo elkartean. Aurretik, 20:00etan, San Martin plazan elkartuko dira. Afarirako izenematea Jardun elkartean egin daiteke, Errotalde jauregiko bulegoan edo 943 76 08 19 telefono zenbakian.

Udaleko idatziak euskaraz jasotzea eskatu dugu



UDALAREKIN EUSKARAZ.
Bergarako Udalak euskaraz funtzionatzen du neurri haundi batean. Bulegoetako langile guztiak euskaldunak dira eta barruko funtzionamendua euskaraz da nagusiki. Baina oso inportantea da herritarrek ere Udalarekin euskaraz jardutea. Horregatik, Udalak idatziak euskaraz jaso nahi dituzten herritarrei horretarako aukera eskaintzen die eta 4300 lagun dira hori eskatu dutenak.

EBPN
euskara biziberritzeko plan nagusia. Bergara

Informazio gehiago:
www.bergara.net
Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66

BERGARAKO UDALA

Herran
BERGARA
Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



"Giro alaia, jende jatorra eta noski jantzi dotorea"

Hurrengo urtean gehiago eta hobeto!







Amets
Bengoa
Branka
Boliñete
Amets
Rumba
Gure Leku
Iamai
Itzala
Monte
Plus Ultra





**LABURMETRAIA** Donostian hirugarren saria eskuratu zuen *Bidaia baten ametsak*; bertan izan ziren taldekide guztiak. ARATZ

**BIDAIA** > GORGONZOLAKO ZINEMA JAIALDIA

# Italiara daramate film laburra Aratzekoek

Ia 50 laguneko taldea joan da Gorgonzolako nazioarteko zinema jaialdian Aratzekoek egindako 'Bidaia baten ametsa' aurkeztera

**MIRARI ALTUBE**> ARETXABALETA

Gaur goizean atera dira Italia aldera Aratz taldeko kideak. Ia 50 lagun joan dira film laburra aitzakia hartuta Venezia eta Milan ezagutzera.

**IA 30 FILM NORGEHIAGOKAN**

Italiako Gorgonzola herrian egiten duten film laburren lehiaketan aurkeztuko dute *Bidaia baten ametsa*. Negu partean hainbat hilabetetan gogor jardun zuten lanean Aratzeko kideek 10 minutuko filma grabatzen. Atzegik lehenengoz antolatutako film laburren lehiaketara aurkeztu zuten gero emaitza, eta maiatzean hirugarren saria eman zietela jakin zuten aretxabaletarrek. Orduan saritutako hiru film onenek Gorgonzolako nazioarteko lehiaketara aurkezteko txartela eskuratu zuten. Ia 30 filmek jardungo du norgehiagokan, baita Euskal Herrian egindako beste batzuk ere: Irungo *Portal 12, 5. izda* eta Donostiako *Bilintx*. Euskaldunez gain, Italia, Frantzia, Belgika eta Afrikako hainbat herritako lanak izango dira ikusgai. Aratzeko kideei, baina, sari banaketak ez die loa kenduko.

**IA 50 LAGUNEKO TALDEA**

Kultura bidaia izena jarri diote Italiako joan-etorriari Aratzeko kideek. Ondo zehaztutako egitaraua eraman dute, hemendik eta domekara bitartean dauden bost egunok ondo baino hobeto aprobetxatzeko. Guztira 46 lagun joan dira: Aretxabaletako zazpi familia, hau da, 22 lagun, lau begirale, Atzegiko egoitzako 12 lagun eta sei begirale, eta bi gidari autobuserako. 08:00etan atera dira herritik Frantziako Tolosara bazkaltzeko iristeko asmoarekin. Iluntzean Monako izango dute geraleku, afaldu zein bisitatzeko, eta 23:00etan Veneziarantz joango dira. Bihar, urriak 12, Venezia ezagutzen pasatuko dute eguna: plazak, kaleak, ubideak, elizak eta era guztietako eraikinak.

Egubakoitzean, berriz, Gorgonzola herrirantz egingo dute. Bertan pasatuko dute eguna, eta iluntzean, 20:00etatik 23:00etara bitartean, film laburren hirugarren jardunaldia ikustera hurreratuko dira.

Eta zapatuan, hilak 14, Milan hiri handia ezagutu, eta 19:00etan lehiaketako antolatzaileekin afalduko dute. Film laburren laugarren eta azken jardunaldia hasiko da 20:00etan, eta Aratzekoen filma eskainiko dute bertan. Ondoren sari banaketa ekitaldia egingo dute. Domeka egun gogorra izango dute bidaiariek, etxera itzulera; 23:00ak inguruan iritsiko dira Aretxabaletara.

**MURRUKIXO MENDI ELKARTEA** > ARGAZKI LEHIAKETA

# Datorren urteko egutegia egiteko argazki bila dabil

Hautatutako argazkia egutegian agertzeaz gain, 150 euroko saria jasoko du irabazleak

**M.A.** > ARETXABALETA

Argazki lehiaketa deitu du Murrukixo Mendizale Elkarteak datorren urteko egutegiko argazkia aukeratzeko. Hala, iaz hasitako bideari emango dio jarraipena. Saria, norberaren argazkia egutegian agertzeaz gain, 150 eurokoa izango da.

**URRIAREN 31RA BITARTEAN**

Argazkiak gura den formatuan aurkez daitezke: diapositiba, paper edo kamera digitalarekin atera eta disketean gordeta. Aurkeztutako argazkiok itzuli egingo dizkiete jabeei aukeraketa egindakoan, hala gura izanez gero behintzat. Bakoitzak lau argazki aurkez ditzake gehienez, eta egilearen datuekin batera argazki bakoitzaren deskribapena ekarri behar du: non ateratakoa den eta azalpen txiki bat.

Murrukixo MEk Durana kalean daukan lokalera ekarri behar dira argazkiok, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara; edo gurago izanez gero Aretxabaletako 34. posta kutxara bidali. Jasoko dituzten azken eguna urriaren 31 izango da.

**IAZ 18 ARGAZKI**

Iaz egin zuen lehenengo aldiz Murrukixok argazki lehiaketa. Aurretik Alberto Etxebarriak ateratako argazkiak erabiltzen zituen egutegiak egiteko, baina haren heriotzaren ostean lehiaketa bidez hautatzen hasi zen. Iaz 18 argazki jaso zituzten, guztiak ere bikainak antolatzaileen esanetan. Hiruhaitzpeko kobatik ateratako argazkia hautatu zuten orduan egutegia egiteko, Olatz Pagaldai aretxabaletarraren argazki dotorea hain zuzen.

> OSASUN ETXEA

### Zapatutako larrialdien ordutegia aldatuko dute osasun etxean

Datorren zapatutik aurrera, urriak 14, ordutegia aldatuko dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako osasun etxeetan. Zapatu goizetan larrialdiak bakarrik hartzen dituzten medikua eta erizaina egoten dira, eta bi herrietan egiten dituzte txandak. Hilaren 14tik aurrera lehenengo ordua Eskoriatzan egingo dute mediku eta erizainak, hau da, 09:00etatik 10:30era. Ondoren Aretxabaletara etorriko dira, eta 11:00etatik 14:00etara bitartean hurreratu ahal izango dira herritarrak. 14:00etatik aurrera Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzuetara jo behar da.

> PARROKIA

### Katekesian hasiko diren umeen gurasoek bilera dute hilaren 16an

Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako neska-mutikoentzat katekesia antolatu dute. Ikasturtea hasteko bilerak egingo dituzte gurasoekin urriaren 16an, astelehena, 17:00etan. Lehenengo mailakoen gurasoak Agustindarren komentuan elkartuko dira, eta bigarren mailakoenak parrokiako lokaletan.

Bestalde, adiskidetasuna, fedea eta konpromisoa lantzen dituen Bizian Gora helduen taldea hamabostean behin elkartzen da parrokiako lokaletan, 17:00etan. Ezagutu gura izanez gero parrokian edo taldeko kideren bati eman izena.

Kimua
Loradenda

- Lore natural eta artifizialez egindako konposizioak
- Etxera eramateko zerbitzua
- Teleordainketa
- Ezkontzak (elizen dekorazioa, ezkontzetarako lore sortak,...)
- Hilerrietarako lore koroak

Domu Santu egunerako enkarguak jasotzen ditugu
Araba ibilbidea 24 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 49 40



**DANBAKA** > ARETXABALETAKO TALDE BAT ETA BI BAKARLARI

# Scam, Inalectrik eta Igor San Juan, Danbakako lehiaketan

## Abenduaren 1ean joko du Scamek, abenduaren 15ean Inalectrikek eta azaroaren 17an Igorrek

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Datorren hilaren 20an, egubakoitza, hasiko da Danbaka, Debagoieneko bigarren musika lehiaketa. 20 taldek jardungo dute norgehiagokan hemendik eta urtarrila bitartean, eta euren artean hiru aretxabaletar daude: Scam taldea, eta Inalectrik eta Igor San Juan bakarlariak.



**INALECTRIK** Abesti akustiko eta elektronikoak egiten ditu Iñaki Sagastak. GOIENKARIA

**HAINBAT ESTILO**

Lau lagunek osatzen dute Scam taldea: Mikel Cubillo abeslariak, Imanol Ramos bateria-joleak, Paulo Casal gitarristak eta Ander Romero baxu-joleak. Ingelesez eta euskaraz abesten dute, eta euren musika punk rocka eta hardcore melodikoaren artean dago. Abenduaren 1ean izango da euren saioa Elgetako Espaloia kafe antzokian.

Iñaki Sagastak osatzen du Inalectrik, baina kontzertua emateko hainbat musikari izango ditu lagun. Abesti akustiko zein elektronikoak egiten ditu, eta ez du estilo jakinik. Abenduaren 15ean ikusiko dugu Espaloiko taula gainean.

Igor San Juanek, ostera, pop estiloko abestiak egiten ditu, eta euskaraz abesten du. Azaroaren 17an dauka hitzordua Espaloian, eta ordu erdiko saioan abestirik dotoreenak eskainiko dizkigu. Aurten bost bakarlari daude lehiaketan, eta irabazleaz gain bakarlaririk onena aukeratuko du epaimahaiak.

Kontzertu guztiak 22:30ean hasiko dira, eta lau taldek jardungo du egun bakoitzean.

> UDALA

### Gaur da euskara teknikari posturako lehen azterketa eta 13 lagunek daukate egiteko deia

Laugarren hizkuntza eskakizunari dagokion azterketa egingo dute gaur, Gasteizen. Euskara teknikari posturako 51 lagunek eman zuten izena, baina azterketa baino lehen memoriatxo bat aurkeztu behar zuten. 18 lagunek ekarri zuten lana, eta horietatik bostek egiaztatu dute laugarren hizkuntza eskakizuna.



M.A.

## Bizikletentzat lekua Duranan

Bizikletak uzteko kiribila jarri dute Durana kalean. Ederto etorriko zaie neska-mutilei aparkaleku berria, lurrean botata uzten zituztelako orain arte. Liburutegian eta gaztelekuan jarri dituzte agintaldi honetan, eta ondoren Kurtzebarri eskola inguruan, kultur etxe berrian eta Gipuzkoa plazan ipiniko dituzte.



NERIAN
Otalora 14 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 70 66

Lore-sortak
Andregaiendako lore-sortak
Lore-zentroak (lore naturala, lehorra, telazkoa,…)
Hilerrietarako moldaketak eta lore koroak
Teleflora zerbitzua – Nazioartekoa
Etxera eramateko zerbitzua
Dekorazioak:
• Atariak
• Bulegoak
• Etxebizitzak
• Terrazak, etb.

*Txartelarekin ordain daiteke*

TELEFLOR INTERNATIONAL FLORES SIN FRONTERAS

**Domu Santu egunerako enkarguak jasotzen ditugu.**

**KULTURA ONDAREA** > ARANZADIK SANTA MARINA INGURUA AZTERTUKO DU

# Santa Marina inguruan azterketa arkeologikoak egingo dituzte astean

1998an Arantzadik inguru hori arkeologia-presuntzioko gune izendatu zuen

Hiruzpalau egunetan 20 lagin egingo dituzte lur azpian zer dagoen aztertu eta jakiteko

Udalak jakinarazi du inguruan etxebizitzak eraikitzeko lanak ez dituztela atzeratuko



**HILTEGIA** Baserria dagoen lekuan XVI. mendetik hona hiltegia, alhondiga, ospitalea eta ermita egon ziren. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Astean Santa Marina inguruan arkeologia azterketak egingo dituzte. Aranzadi elkartea arduratuko da lan horretaz. Hala adostu zuten aurreko astean Eskoriatzako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Orubidek eta Aranzadik, hain zuzen ere.

Kontua aspalditik dator. 1998an Arantzadik inguruak aztertu eta lagin batzuk egin zituen. Besteak beste, erromatar garaiko zeramikak aurkitu zituzten. Horren ondorioz, Santa Marinako ingurunea arkeologia-presuntzioko gune moduan izendatu zuten. Izendapen horren arabera, lur azpian dagoena babestuta dago.

**ETXEAK EZ DIRA ATZERATUKO**

Udaleko ordezkariek jakinarazi digute Aranzadik hiruzpalau egunetan egingo dituela laginak, eta guztira 20 izango direla. Batez ere, hiltegi zaharraren inguruan egingo dituzte. Horren harira, Udalak zabaldu duen mezua da arrazoi horregatik ez direla atzeratuko etxebizitzak eraikitzeko lanak.

Are gehiago, Udaleko Kultura eta Ondareko zinegotzi Juan Luis Merinok argitu zuen hiltegi inguruan "zerbait aurkitzekotan, lur azpian" utziko luketela "denbora eta baliabide gehiago aurki artean". Hain zuzen ere, ingurune jakin horretan plaza bat egingo dute. Hortaz, aurkikuntzak epe baterako estali daitezkeela argitu zuen.

**HILTEGIA, OSPITALEA ETA BESTE**

Egunotan, Santa Marinako ingurune horretan baserri bakarra utzi dute zutik, azterketa arkeologikoa egin bitartean. XVI. mendean eraikin horretan alhondiga eta hiltegia zeuden kokatuta. Horren aurretik, ospitalea eta ermita ere izan ziren han. 1510 eta 1520 bitartean izurrite handia izan zen, eta gaixoak ospitale horretara eramaten zituzten.

**AZTERKETAREN KOSTUA BANATU**

Bestalde, Juan Luis Merinok azaldu zigun azterketa horren kostua Santa Marinako ingurunean esku hartu behar duten enpresa eta sustatzaile guztien artean ordaindu beharko dutela. Hain zuzen ere, Udalak ez duela gastu hori bere gain hartuko.

**HARLANDUZKO HARRIA**

Horrez gain, Udaleko ordezkariek jakinarazi digute ingurunean harlanduzko harri ugari dagoela eta hori Udalak gordeko duela eraikin historikoak berreskuratzeko, besteak beste. Horrekin batera, aipatutako baserriaren zutabe eta eskailerak, eta baita alboko zubia ere gordetzea erabaki dute.



IBARRAUNDI

## Inprenta makinak Ibarraundira

Ibarraundi museoko arduradunak Zarauzko inprenta bateko arduradunekin harremanetan daude handik hiru inprenta makina Eskoriatzara eramateko. Zarauzko inprenta hori itxita dago eta makinak soberan dituzte. Hortaz, bi aldeak aztertzen dabiltza zer motako tratua egitea.

Ibarraundiko arduradunek esan digute aurrerantzean mojen zine zaharreko makinak eta Zarautzik inprentatik eramandakoak batuta, zinema eta inprentaren gaineko erakusketa egin dezaketela.

> KIROLA

## Mendi bizikleta ibilaldia egingo dute hilaren 22an

Aurten, hamazazpigarren aldiz, Udaleko Kultura Sailak mendi bizikleta ibilaldia antolatu du. Hilaren 22an, domeka, egingo dute eta dagoeneko izenematea zabalik dago.

40 kilometroko ibilbidea prestatu dute, honako hau: hirigunetik Apotzagara, Kurutzetara, Jarindora igo, Txarrantxara jaitsi, Marisatik Uxarrera igo, eta Karoi, Eraña eta Letetik barrena hiriguneraino berriro.

Federatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte (derrigorrezkoa izango da federatu txartela erakustea). Gainontzekoek, berriz, 13 euro. Izena emateko bi aukera daude: Kutxan edo Euskadiko Kutxan diru hori sartzea eta *kultura@eskoriatza.net* helbidera mezua bidali, edo egunean bertan 08:30ean, udaletxeko plazan izena eman eta ordainketa egitea.

> AISIALDIA

## Ludotekako eta gaztelekuko urriko egitarauak, abian

Tortolis ludoteka eta gaztelekua, biak ala biak, zabalik eta lanean dabiltza azken aldian.

Tortolis ludotekatik datozen egunetarako egitaraua helarazi digute. Zapatuan, hilaren 14an, 6 eta 9 urte bitartekoendako ludoteka irekia egingo dute, 11.00etatik 12:30era bitartean, hain zuzen ere.

Hilaren 21ean, zapatua, 10 eta 12 urte arteko lagunek kanpoko jolasak egingo dituzte; eta hurrengo zapaturako, hilaren 28a, *Familia giroan* lelopean, ume eta gurasoei zuzendutako lehiaketa antolatu dute.

Bestalde, 12 eta 16 urte bitartekoei zuzendutako zerbitzua, gaztelekua, urriko asteburuko guztietan zabalik egongo da, egubakoitzetik domekara bitartean, eta honako ordutegia izango du: 16:30etik 20:30etara bitartean hara gerturatutakoek hainbat aukera izango dituzte.

**SALAKETA** > PINTADAK EGIN DITUZTE JOSE ANGEL ZABALOREN AURKA

# Alkatearen aurka agertutako pintadak salatu ditu Udalbatzak

Sagastin gizarte etxea egiteko Udalbatzak hartutako erabakia izan da pintaden arrazoia

"Jazarpen gertaerak orokorragoak diren ekintza planifikatuen emaitza" direla diote zinegotziek

**IRATII AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Joan den astean alkatearen aurkako pintadak agertu ziren honen enpresan, etxeko fatxadan, udaletxean eta baita Sagastiko obretako hondeatzeko makinan ere. Hori salatu zuen Udalbatzak (EAJ-EA eta PSE-EE) azken Osoko Bilkuran.

Bertan adostutako idatziaren arabera, pintaden arrazoia da, "Sagastin zerbitzu sozial eta kulturalak izango dituen gizarte etxea, eta 5.000 metro koadroko parkea eraikitzeko udal ordezkariek adostasunez bere momentuan hartutako erabakia".

Gaineratu zuten, "Jose Anjel Zabalo alkatea ez ezik, PSE-EEko Elbira Kortajarena, EAko Dina Muxika eta EAJko Jose Inazio Beltran, Iñigo Ramirez de Okariz eta Basili Ormazabal ere erabaki honen erantzule politikoak dira".

Bestalde, "Udalbatza demagogia eta kontsulta paralelorik gabe herrian sortutako gai eta arazoei aurre egiteko gai dela", esan zuten.

**MEHATXUAK SALATZEKO ESKAERA**

Gainera, Sagastin Parkearen Aldeko Taldeari eskatu zioten, "mehatxuan oinarritutako metodoak erabiltzea deitoratuz, salatu ditzala publikoki prozedura horiek".

Udalbatzak pentsatzen du, "jazarpen gertaera hauek zabalagoak eta orokorragoak diren ekintza planifikatuen emaitza direla".

Era berean, azpimarratu zuten proiektuarekin lanean jarraitzeko asmoa dutela, eta "polemika alderdikoi eta zentzugabe honen azkena izango dela".

"Proiektua herriarentzat onena izan asmoz, hasieratik interesa eta laguntza eman nahi izan dutenen emaitza da. Uste dugu borondate oneko jende horri ez diogula huts egin".

**bere ustez**



Kontxi Laskurain

## Yogan izandako burutazioak

Yogako ikastaroan nago. Irakasleak dio kontziente egoteko eta kontzentratzeko arnasketan. Baina burua joan egiten zait herrian pil-pilean dabiltzan gaietara:

- Joan zen astean, bero haiekin, plazan eta frontoian sekulako usain txarra egon zen. Zergatik ez dute zaborra egunero batzen?

-- Lehengo egunean, elizatik irteterakoan, herritar batek min hartu zuen. Izan ere… dauden eskailera zakar horiekin, normala! Baina orain, plaza txukuntzen dutenean, sarreraren bat ipiniko dute traba arkitektoniko barik, ezta?

- Pena handia daukat herri erdian zegoen azken zelaia apurtzen hasi direlako. Nik neuk belarrezko parkea egingo nukeela idatzi nuen 2005eko maiatzean artikulu hau agertzen den toki honetan. Herria gune berde barik lagatzen dihardugu!

Eta irakaslearen ahotsa berriz: "Burua joan bazaizue, hartu goxo-goxo eta ekarri, ez kritikatu, kontzentratu arnasketan".

Bai, bai, geure burua eta besteena goxo-goxo hartuko bagenitu eta ingurunea zela hobetu lasai-lasai pentsatuko bagenu, hobeto biziko ginateke; hori bai!

**"Ingurunea zela hobetu lasai-lasai pentsatuko bagenu, hobeto biziko ginateke"**

**AZPIEGITURAK** > BIDE GORRIA

# Trenbide zaharrean bide gorria egiteko asmoa dago

Udala FEVErekin eta Foru Aldundiarekin batzartu da lurren erosketaz berba egiteko

**I. A.** > ANTZUOLA

Ferrocarriles Españoles de Via Estrecha enpresari Antzuolan geratzen zaizkion lurretan bide gorria egiteko asmoa dute, eta horretarako lurrak eskuratzeko hainbat batzar izan dituzte Udal ordezkariek.

FEVEk 206.452 euroko salneurria ipini bazuen ere, Udalak 100.000 euroko eskaintza egin eta tren enpresak onartu egin zuen.

**FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZA**

Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin tratua egin nahi du Antzuolako Udalak, lur horiek erosi ahal izateko honek diru laguntza eman diezaion.



**TRENA** Zumarraga eta Maltzaga arteko trenbide zaharra aprobetxatuko dute. I.A.



**BOST TALDE** Argazkikoek lehen saria jaso zuten euren mailan. J. LUIS ARANBURU

**AISIALDIA** > PATATA TORTILLA LEHIAKETA

# Tortilla bikainak egin zituzten gaztetxoek

Guraso elkartekoek datorren urtean ekimena indartzeko asmoa azaldu dute

**I. A.** > ANTZUOLA

Zapatuan frontoi txikian egin zuten gaztetxoek patata tortilla lehiaketa guraso elkarteak antolatuta. Musika lagun zutela giro onean gertatu zituzten tortillak.

Maialen Iparragirre, Nagore Igartza, Ane Lizarralde, Ariadna, Inhadesin, Alaitz Urkiola eta Josune Canterok euren mailan jaso zuten saria.

5. eta 6. mailan lehen saria Amaia Arana, Ane Martin, Ane Miren Muguruza, Leire Martin, Alba Benitez eta Miren Zubikaraik jaso zuten. Bigarrena, Mikel Mata, Antton Arregi, Gorka Martin, Andoni Cid, Bingen Alkorta eta Iker Moyanok.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**HIRIGINTZA** > IRISGARRITASUN PLANA

# Konponketak egin nahi dituzte herrian ibiltzeko oztopoak kentzeko

Aldapatxoak ipiniko dituzte sendagilearen kontsultan, hilerrian eta Salbador zeharbidean

Kultura etxeko igogailua martxan jartzea da aurreikusitako beste hobekuntza bat

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Udalak irisgarritasun plana gertatu du. Herritarrek hainbat kexa aurkeztu dituzte leku batzuetara iristeko dauden oztopoengatik. Gaiarekin kezkatuta egin du plangintza Udalak.

Udalaren asmoa da Eusko Jaurlaritzari dirulaguntzak eskatzea. Jasotako diruaren arabera erabakiko dute zein lani eman lehentasuna eta beharbada batzuek ezingo dituzte egin.

Ailegaerraztasuna bideratzeko aurreikusi dituzten lanetako batzuek honakoak dira: lurzorua konpontzea eta aldapatxoak ipintzea. Honen kostua da plangintza barruan handiena: 16.309,30 euro. Lehentasuna izango du sendagilearen kontsultako sarrerak, hori baita herritarren eskari nagusia. Hilerriko sarreran ere ipini nahi dute aldapatxoa; baita Salbador zeharbideko espaloian ere; Torrealdean etxea duen ezindu bati ezinbestekoa zaio-eta aldapatxoa izatea batetik bestera mugitzeko.

**BIDEA LAUTU SAN ROKEN**

San Roke kalean, arkuaren parean eta Iñaki tabernaren aldamenean, galtzada harriak daudenez, lurra lautuko dute, aldenik alde, gurpildun aulkien edo haurraulkien pasabidea errazteko.

Bestetik, Espaloia kafe antzokirako ere aurreikusi dituzte hobekuntzak: komuna ezinduendako egokitzea, komun-ontziak aldatu eta heldulekuak ipinita. Lanen kostua 1.081,64 eurokoa da. Gainera, kafetegirako sarreran egurrezko aldapatxoa eta baranda ere jarriko dituzte.

**POSTONTZIA IPINITA**

Andramari plazan postontzi berria ipintzea ere aurreikusi zuten, baina Correosek dagoeneko aldatu du. Orain, Mendizaleen plazakoa egokitu eta lurretik 90 zentimetrora ipini nahi dute.

Beste lanetako bat da kultura etxeko igogailua martxan jartzea. Igogailua egon badago baina sekula ez da erabili. Horretarako kostua 11.089,60 eurokoa da.

Hobekuntza lan hauek guztiak 2006 eta 2007 urteen artean egingo dituzte.

**HEZKUNTZA** > GURASO ELKARTEA

# Zuzendaritzan zazpi guraso berri

Guraso elkarteko zuzendaritzak lehen batzarrean ikasturte berrirako asmoak zehaztu ditu

**I. A.** > ELGETA

Ikasturtea hasierarekin egin du Guraso Elkarteak lehen batzarra. Zuzendaritzan kide berriak sartu dira. Jarraitzen dutenak Dayami Baro, Rebeka Ubera eta Idoia Ubera dira. Berriak, berriz, dira Amaia Iribar, Garbiñe Sarasketa, Mireia Markiegi, Mari Karmen Egiguren, Mari Karmen Sanchez-Arevalo, NaiaraGarrido eta Idoia Elkoro.

Aurtengo ikasturterako asmoak zehaztu zituzten: gaztainarre eguna, Gabonetako ekintzak, bigarren eskuko azoka, gurasoen ikastaroak, inauterietako txokolatada, udaberri jaia etaAsentzio egunerako dantza saioa.

Guraso Elkarteak eskolaz kanpoko ekintzak ere antolatzen ditu: psikomotrizitate saioak eta musika eta ingeles eskolak.



**EMAKUMEAK** Hamar emakumek osatzen dute zuzendaritza taldea. I.A.

> KULTURA

## Kontxi Idigorasen margo eta zeramika lanak Espaloian

Urriaren 16an ipiniko du Kontxi Idigorasek erakusketa Espaloian, eta urriaren 26ra arte izango dira bere lanak ikusgai. Bergarako Margolarien Elkartean (Beart) jarduten du Ricardo Azkargorta irakasle duela. Olioan eta akrilikoan margotzen ditu paisaiak eta abstraktuak. Zeramika egitea ere gustuko du. Espaloian 13 koadro eta zeramika lan batzuk erakutsiko ditu.

> AISIALDIA

## Ludotekan lan egiteko begirale bat behar da

Udalak deialdia egin du ludotekan jarduteko begirale bat kontratatzeko. Beharrezkoa da euskara jakitea begiraleak. Azaroaren hasieran hasiko litzateke lanean apirilaren amaierara arte; astelehenetik barikura 16:00etatik 19:00etara. Lanaren gaineko informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko udaletxera jo beharko da urriaren 20a baino lehen.

> ELKARTEAK

## Ozkarbi elkateak batzar orokorra egingo du

Batzar orokorrerako deia egin die ozkarbi elkarteko zuzendaritzak bazkideei. Bilera eguenean, urriaren 19an, izango da elkartean bertan. Lehen deialdia 20:00etarako egin dute eta bigarrena 20:30erako. Gai bakarra izango da eztabaidatzeko: Erretiratuen elkarteak Ozkarbi elkartearen baitan duen etorkizuna, hain zuzen ere.

BIARK STUDIO SL
Arkitektura proiektuak
Usaetxe plaza 1 behea Esk (Kopyprest parean)
ARRASATE
Tel.: 943 798033 Mug.: Asier (652755446) Aritz (679736329)
E-posta.: biark@arquired.es



Berriztapenak

Obra berriak

Hirigintza

Erreformak



LAU BLOKE Errepidearen alde batean hiru bloke eraikiko dituzte eta errekaren ondoan, berriz, beste bat, txikiagoa. OLABARRI

ETXEAK > BABES OFIZIALEKO ETXEAK

# Datorren urteko lehen sei hilekoan hasi beharko lirateke etxeak egiten

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez, laster bukatuko dute babes ofizialeko etxebizitzen urbanizazioaren egoeraren gaineko txostena

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak GOIENKARIAri konfirmatu dio babestutako etxebizitzen urbanizazioaren gaineko txosten teknikoa egiten dabiltzala. Baieztatu digu etxeok eraiki behar dituen Olabarri enpresak eskatu diola txostena. Enpresa eraikitzaileak jakin nahi du orain arte egindako urbanizazio lanak modu egokian egin dituztela eta ez dela inolako arriskurik izango eraikitze lanak egiterako orduan.

**TXOSTENA BUKATZEAR**

Bada, Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi dutenez, txosten tekniko hori bukatzear dute; hain justu ere, hilabete barru izango dute emaitza esku artean. Etxebizitza Saileko Pilar Matias prentsa arduradunaren esanetan, "oraindik ez dago ziur pareta arriskutsua denik. Txosten horrek zehaztuko du benetan arriskurik badagoen, arrisku hori zein punturainokoa den, eta aurrera begira zelako obrak egin beharko ditugun, oker dagoena zuzentzeko. Helburua da garantia osoa izatea han ez dagoela arriskurik ez obrak egiteko ezta langileendako ere".

**LEHENGO SEI HILEKOAN**

Aurreratu digu datorren urteko lehen hiruhilekoan dutela asmoa urbanizazio lan horiek egiteko; "horiek bukatu eta berehala hasiko dira eraikitzeko lanak egiten". Zera gaineratu digu: "Datorren urteko lehen sei hilekoan lanek hasita beharko lukete".

**PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK**

Sortu den arazoaren gainean, berriz, Etxebizitza Sailak zehaztu gura izan du Pedro Inazio Barrutia kaleko orubearen urbanizazio proiektua Aramaioko Udalaren eskuetan ere izan dela, eta hark eman duela proiektua exekutatzeko lizentzia.

Horren aurrean, Udalak jakinarazi digu hori horrela dela, baina zera ere argi utzi dute: "Udalak bakarrik obrak egiteko baimena ematen du. Baina Udalean ulertzen dugu proiektua bidali aurretik eskuratu dituela Jaurlaritzako bestelako departamentuen lizentzia guztiak; proiektua behar bezala dagoela ulertzen dugu".

PARETEKIN BURUKOMINA

## Errepidearen pareta da orain arazo; lehenago, errekan eraikitakoa izan zen

Pedro Inazio Barrutia kalean eraiki behar dituzte etxebizitzak; 44, guztira. Babestutakoetan ohikoa den moduan, bakoitzak bere garajea eta trastelekua izango du. Errekatik gertu bloke txiki bat eraikiko dute eta errepidearen beste aldean gainerako hirurak. Horren harira, lehenago ere izan dute urbanizazioarekin arazoa etxebizitza horiek: errekan pareta bat eraiki zuten, legeak uzten ez zuena (2004). Hala, pareta bota egin behar izan zuten (2005), eta horrek ere eragin zuen atzerapena etxebizitzon proiektuan. Orain, errepidearen beste aldeko pareta da arazoa.

OBRAK > EGUZKIERRIPAKO AZPIEGITURAK

# Urtea bukatu baino lehen esleituko dituzte lanak

Obren lehiaketako prozesua abiarazita dago; laster argitaratuko dute

**U.M.** > ARAMAIO

Arabako Buletinean argitaratu ostean, interesa duten enpresek 26 eguneko epea izango dute Udalari proposamenak aurkezteko. Aurreikuspenen arabera, urtea bukatu baino lehen esleituko du Udalak proiektu hori.

Behin hori egin eta gero, enpresak zortzi hilabete izango ditu lanak bukatzeko. Aurrekontua da 785.998,36 euro.

**UR ETA GAS SISTEMA BERRIAK**

Herriko bestelako auzo batzuetan egin dituzten obra berak egingo dituzte Eguzkierripan: auzoko azpiegiturak berritu.

Horren barruan egingo dutena da ur edangarriaren distribuzio sarea hobetu, ur zikinen saneamendua, eta argindar, telefonia eta gasaren kanalizazioak lurperatu.

Hala, ur edangarriari dagokionez, gaur egun baserri bakoitzak bere iturburua dauka ura hartzeko. Obrak egin ostean, berriz, Gantzagako biltegiko ura eramango dute Eguzkierripako 12 baserrietara.

Ur zikinen saneamenduari dagokionez, berriz, bestelakoen artean bost kolektore eraikiko dituzte. Horrez gainera, fosa septikoak ere ipiniko dituzte.

Bestalde, gaur egun gas instalaziorik ez dute Eguzkierripan; bada Udalak gura du Ibaben tanke bat ipintzea eta baserri guztiei helaraztea gasa.

Bukatzeko, argindar eta telefonia hariak airetik doaz orain. Asmoa da horiek lurperatzea.



GAZTEAK Bi gazte aramaioar, joan den urteko lehiaketan. GOIENKARIA

KULTURA > KALEKO XV. MARGO LEHIAKETA

# Dei egin dute, biharko lehiaketan parte hartzeko

Lehiaketan aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute Sastiñan, urriaren 12tik 22ra

**U.M.** > ARAMAIO

Nahi duenak parte har dezake margo lehiaketan; lanak teknika librean egin ahal izango dira. Hori bai, gaia, urtero moduan, da *Aramaio eta bere ingurua*; eta lanak 09:00etatik 11:00etara bitartean bukatu beharko dituzte.

Horren ostean, lehiaketaren antolatzaileek, Itur-Zuri Emakume Elkartekoek, eta lehiakideek batera bazkalduko dute, eskolan, 14:30ean.

Izan ere, irabazleen izenak 18:30ean jakinaraziko ditu epaimahaiak.

**SEI SARI ETA ERAKUSKETA**

Hain justu ere, epaimahaia osatuko dute margolaritzan eta arte kontuan adituak diren irakasleek eta margolariek.

Sariei dagokienez, sei izango dira. 16 urtetik gorakoendako, hiru: 600 euro eta plaka, 360 euro eta plaka eta 240 euro eta plaka. Eta beste hiru gazteendako; 150 euro eta plaka, 60 euro eta plaka eta 30 euro eta plaka.

Bestalde, egunean bertan erakusketa zabalduko dute lehiaketako lanekin, Sastiñan, urriaren 22ra arte.

**ARETO FUTBOLA** > ESKORIATZA

# Nazional maila errekuperatzeko ahalegina egingo du Eskoriatzak

Antonio Regañoren mutilek joan den urtean galdu zuten kategoria, baina gora begira dabiltza orain ere; zapatuan jokatuko dute etxean

**XABIER URTZELAI** > ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futbol taldeak Euskal Ligan ekin du denboraldia. Nazional mailatik jaitsi berri, entrenatzaileak esan digu taldea gogotsu dagoela, berriro gora igotzeko irrikan. Hori, baina, ez da batere erraza, joan den denboraldi amaieran hainbat jokalarik taldea utzi zuten-eta. Antonio Regaño entrenatzaileak zera dio: "Denboraldia amaitutakoan garbi esan genuen taldearen helburua berriro ere Nazional mailara igotzea izan behar zela. Hainbat jokalarik, baina, taldea uztea erabaki zuten eta aurtengo helburuak berriro ere gainbegiratu egin behar izan ditugu. Taldeak gora igotzeko ilusioa du, baina beste helburu batzuk lehenetsi behar ditugu, Euskadiko Ligan finkatzea, eta ez sufritzea, besteak beste. Horretarako, taldeak bateratu egin behar ditu indarrak, joan den urteko goiko eta beheko taldeetako jokalariekin osatu dugueta aurtengo Eskoriatza".

**ZAPATUAN, 18:00ETAN**

Ligako lehenengo bi norgehiagokak jokatuta, Eskoriatzak zapatuan jokatuko du hirugarrena, etxean: "Apel Getxo taldea izango da Intxaurtxuetan, eta talde makala dela badiote ere, kontuz ibili behar dugu, horrelako taldeak goitik behera aldatzen dira-eta urte batetik bestera", dio Antoniok.

Etxean jokatuko duten bigarren partidua izango da, eta Eskoriatzakoak garaipen gosez daude: "Etxeko lehenengo partiduan 3-3 egin genuen Dosamor taldearen kontra, eta domekan 1-2 irabazi genuen Lagun Onak-en kantxan. Egia esan, partidu makala egin genuen, baina irabazi izanak balio du. Hala, etxean irabazteko gogoz gaude".

Euskal Ligan dabilen taldearekin batera, ezin ohorezko mailan dabilen taldea ahaztu. Harrobi lanak egiten dituen taldeak bihar, eguena, jokatuko du etxean Agurainen kontra (11:00).



**INDARRAK BATERATU** Joan den urtean goiko eta beheko taldean zeudenen artean egin dute Eskoriatza berria. GOIENKARIA

## Aloña Martutenen, Mondra Errenterian eta UDA Berion

Etxetik kanpora jokatuko dute ibarreko hiru ordezkariek, baina lerro hauek idatzi ditugunerako Federazioak erabakitzeke zituen seigarren jardunaldiko ordutegiak. Dakiguna da 15. postuan dagoen Martutenen kantxara joango dela Oñatiko taldea; Mondrak Errenterian jokatuko duela eta Berio egongo dela Aretxabaletaren zain, Donostian.



GOIENKARIA

> ERRUGBIA

### Gazte mailako taldeak bihar hasiko du liga txapelketa; seniorrek, berriz, zapatuan

Arrasateko gazte mailako eta seniorreko taldeek etxetik kanpora hasiko dute Liga. Hala, egutegiarekin hainbat gorabehera izan eta gero, gazte mailako taldeak bihar, eguena, jokatuko du denboraldiko lehenengo norgehiagoka, Atletico San Sebastian taldearen zelaian (12:15). Seniorrek, berriz, zapatuan egingo dute ligako estreinaldia. Irungo taldea izango dute kontrario (16:00).

> SASKIBALOIA

### Mugarri Alkesak Gasteizen jokatuko du hirugarren jardunaldia, liderraren kontra, bihar

Izen berezia izango du Mugarri Alkesaren hurrengo kontrarioak, *Zuru*-ren mutilek lehenengo postuan dagoen MapyTV.com taldearen kontra jokatuko dute-eta bihar, eguena, arratsaldean Gasteizen. Hala, etxetik kanpora jarraian jokatuko duten hirugarren partidua izango da biharkoa. Bat galdu eta bestea irabazi; horixe Mugarri Alkesak orain arte egin duena.

*Ezkontza Azoka*
*Eibar 2006*
Urriaren 21ean eta 22an
Non: Armeria Eskolan
(Kantoi gasolindegiaren parean)
Ordutegia:
Zapatuan: 17:00etatik 21:00etara
Domekan: 11:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 21:00etara
Profesionalen erakusketak, dastatzeak, desfileak, zozketak...
Sarrera DOHAINIK guztientzako.
Ezkontza egunerako behar den guztia





MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

((112))
SOS DEIAK



**> GANBARA**
Oñatiko abesbatza Tolosako nazioarteko jaialdian lehiatuko da > 26



**> LITERATURA**
Literatur solasaldiak Arrasaten datorren astetik > 26

**> DEE-DY MOHAMED**
Tindufeko kanpalekuan jaioa, *Moha*-k zazpi urte darama Oñatin, eta erabat integratuta dago. Hip-hopa egiten duen Kultur LAB taldean dabil > 27



Hamabost talde eta bost bakarlari lehian Debagoieneko Musika Lehiaketan

Kontzertuak hamabostean behin izango dira Espaloian, urriaren 20an hasita

Finala urtarrilaren 12an izango da; irabazleek diskoa grabatuko dute

# Danbaka musika lehiaketa, abian




**AURKEZPENA** Martitzenean aurkeztu zuten Danbakaren bigarren ekitaldia. Argazkian, Haroa Rodriguez, Mikel Irizar eta Samuel Gorrotxategi. IKER BARANDIARAN

**EDU MENDIBIL** > ELGETA
Danbaka, Debagoieneko II. Musika Lehiaketa hurrengo egubakoitzean, urriaren 20an, jarriko da abian. Atzo, martitzena, egin zuten aurkezpena, Elgetako Espaloia Kafe antzokian. Mikel Irizar Kutxako ordezkariak, Astoreko Haroa Rodriguezek eta Amagoia Lasagabaster Goienako kazetariak azaldu zituzten lehiaketaren nondik norakoak.

**20 TALDE LEHIAN**
Bailarako 15 taldek eta bost bakarlarik hartuko dute parte lehiaketan. Epaimahaiak ez du lan erraza izan: aurkeztutako eskarien artean, 19 aukeratu dituzte. Irakurleek aukeratu dute 20. taldea *danbaka.com* webgunearen bitartez. Arrasateko Anal Bag taldea izan da boto gehien jaso duena.

**KONTZERTUAK ESPALOIAN**
Orain dela bi urteko ekitaldian bezala, kontzertuak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira, hamabost egunean behin. Lehenbiziko hitzordua, urriaren 20an: Azkaiter Pelox, Drakes, Klakson eta Ozen arituko dira taula gainean. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira eta talde bakoitza ordu erdiz arituko da.

**SARI BIKAINAK**
Finala urtarrilaren 12an izango da. Iban Arantzabal Espaloiako ordezkariak, Iker Barandiaran Goienako kazetariak, Shot estudioko Iñaki Bengoak, Jul Bolinaga RIP taldeko kide ohiak eta Itziar Iturbe Cool Panic taldeko abeslariak osatuko dute epaimahaia. Sari nagusia disko baten grabaketa izango da. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeari esker, irabazleek diskoa grabatu eta kaleratzeko aukera izango dute. Bakarlarien artean onenak, berriz, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian kontzertua eskaintzeko aukera izango du eta, azkenik, ikusleen saria irabazten duenak 1.200 euro jasoko ditu, musika instrumentuetan gastatzeko, Carrion dendan. SMS bidez, *danbaka.com*-en edo kontzertuen ostean, Espaloian bertan, jasoko dira ikusleen botoak.

**SARRERAK ETA BONUAK**
Kontzertu bakoitzeko sarrerak 4 eurotan salduko dira. Gaztekutxaren bitartez, 2 euroren truke eskura ditzakezue. Abonuak ere izango dira salgai, 18 eurotan (10 euro Gaztekutxan). Sarrerak eta abonuak, Espaloian, Goienako egoitzetan edo 902 36 38 51 telefonora deituta.

**DANBAKA KAMISETA**
Danbakaren kamiseta dotoreak Astore etxearekin lankidetzan kaleratu ditu Goienak. Edizio mugatua da eta 19 eurotan salgai jarri dituzte kamisetok, beltza eta gorri kolorekoak, neskendako zein mutilendako.

**LEHIAKETAREN JARRAIPENA**
GOITBk kontzertuak eskainiko ditu eta GOIENKARIAk eta ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ere Danbakaren jarraipen zabala egingo dute astero.
*http://www. danbaka.com*



GANBARA Tolosan parte hartu aurretik, hainbat emanaldi egingo dituzte. Zapatuan Azpeitian izango dira. GOIENKARIA

**MUSIKA** > TOLOSAKO NAZIOARTEKO LEHIAKETA

# Ganbara abesbatza Tolosan lehiatuko da

Esteban Urzelaik zuzendutako taldeak emanaldia egingo du azaroaren 1ean; nazioarte mailako hainbat abesbatza elkartuko dira Tolosan

**EDU MENDIBIL**> OÑATI

Oñatiko Ganbara abesbatzak Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketan parte hartuko du. Aipatutako jaialdia urriaren 31tik azaroaren 5era ospatuko da eta oñatiarren emanaldia azaroaren 1ean izango da. Nazioarte mailan Ganbarak aurten duen bigarren hitzordua izango da Tolosakoa: apirilean laugarren postua eskuratu zuten Mariborren, Eslovenian jokatutako lehiaketan.

**SARRERAK SALGAI**

Tolosako emanaldirako sarrerak salgai daude Oñatiko kultur etxean, 18 eurotan (25 euro autobus bidaia barne). Tolosaren aurretik, Azpeitian (zapatuan), Oñatin (hilaren 22an), Leioan (28an) eta Eibarren (29an) emanaldiak egingo dituzte Ganbarako kideek.

> ZINE-KLUBAK

## Datorren eguenean 'Crash' eta 'Zona libre', Oñati eta Arrasateko zineklubetan, hurrenez hurren

Oñatiko zineklubeko programazioaren barruan, datorren eguenean, urriaren 19an, aurten Oscar saria irabazitako *Crash* filma emango dute, 20:00etan. Urriaren 26an *Tapas* eta azaroaren 2an *No sos vos, soy yo* iritsiko dira Oñatira. Arrasaten ere eguenetan izango dira emanaldiak, 20:30ean: urriaren 19an *Zona libre* emango dute eta hilaren 26an, *Pintar o hacer el amor*.



GOIENKARIA

## Literatur solasaldiak Arrasaten

Datorren astetik aurrera literatur solasaldiak izango dira Arrasaten. Euskarazko saioetan, honako liburuak izango dituzte aztergai: Aingeru Epaltzaren *Rock'n'roll*, urriaren 24an; Paul Austerren *Brooklyngo erokeriak*, azaroaren 28an; eta Juan Luis Zabalaren *Galdu arte*, abenduaren 19an. Koordinatzailea Iban Zaldua idazlea izango da. Gaztelerazko saioetan, Rikardo Arregiren eskutik, *La mesa limón* (Julian Barnes) aztertuko dute urriaren 17an; El cuerpo de Jonah Boyd (David Leavitt) azaroaren 14an eta Elias Canettiren *La lengua absuelta* abenduaren 12an. Saio guztiak, esan bezala, Monterronen izango dira, 18:30ean hasita.



Dee-Dy Mohamed Salem > Ikaslea

# "Saharak independentzia eskuratzen badu, Oñatira bisitan etorriko naiz"

Dee-Dy Mohamed Salem *Moha* deitzen dute Oñatin. Tindufeko kanpalekuan jaiotakoa, zazpi urte darama herrian eta oso integratuta dago. Bere sorterriaren hutsunea dauka, baina asko eskertzen du bere bigarren familiak, Oñatikoak, ikasteko eta formazioa eskuratzeko emandako aukera. Aspaldian hip-hopa egiten duen Kultur LAB taldean dabil.

IKER BARANDIARAN > OÑATI

**Moha Saharatik bueltan harrapatu dugu eta herriminaz jota dago. Hala ere, badaki Euskal Herrian ikasketak egiten baditu, bere herriaren alde gehiago egingo duela.**

**Non jaio zinen? Zer oroitzapen dauzkazu haurtzarotik?**

Tindufko errefuxiatuen kanpalekuan, Argeleko lurretan, *haima* artean eta 50 graduko tenperaturan. Hezkuntza derrigorrezkoa zen, eta lagunekin asko jolasten genuen: kanikatan, autoei jarraika... Land-roverretan zintzilikatu eta *eskiatu* egiten genuen oinutsik. Hango umeok oso azal gogorra daukagu hankapean, ez genuen minik hartzen. Saharan umeak ia gizonak dira. Aita asko armadan dira eta umeok ardurak hartu behar izaten ditugu: mugak zaindu... Anaia nagusiena naiz ni.

**Txikitan zer izan gura zenuen nagusitzerakoan?**

Medikua. Han gaitz asko daude, sendagaiak urriak dira eta askotan egoera txarrean daude. Medikua izatea laguntzeko eta baliagarri izateko modua da.

**Noiz irten zinen lehenengo aldiz Saharatik? Zerk harritu zintuen gehien?**

Sei urterekin Andaluziara joan nintzen bi hilabetez *Oporrak bakean*-en moduko programa batekin. Zur eta lur gelditu nintzen. Sirocotik haizera, dunetatik berdegunea ikustera, *haima*-etatik 11 solairuko etxeetara, auto ugari, igerilekuak, garbigailuak... Kontrastea izugarria da. Gerora, Kanariar irletan eta Donostian ere izan nintzen. Guztietan oso gustura egon naiz, baina Donostian izugarri ondo pasa nuen. Saharako lagunak elkartzen ginen... Oso ondo antolatuta zuten.

**Zelan heldu zinen Oñatira?**

Donostian Adra izeneko mutil bat ezagutu nuen eta Oñatiko familia batekin harremanetan jarri ninduen. Familia horrek orain dela 7 urte hartu ninduen eta ordutik nago eurekin. Nire bigarren gurasoak dira, nire hemengo familia. Saharakoek baino gehiago eman didate, baina biak hala biak maite ditut. Saharak independentzia eskuratuko balu, Oñatira bisitan etorriko nintzateke.

**Noiz ikasi dituzu espainola eta euskara?**

Espainola Saharan bertan ikasi nuen. Hango bigarren hizkuntza da, eta eskolan irakasten dute, Espainiako kolonia izan zelako. Euskara hemen ikasi dut, Oñatin. Ondo ulertzen dut, baina ez dut oso ondo hitz egiten. Hizkuntza zaila da, baina ahaleginduz gero, ikas daiteke. Nik lortu dut.

**Saharatik zer igartzen duzu faltan?**

Ia guztia. Hango eguraldia eta giroa, hango elkarrizketaldiak. Han bestelako umorea daukagu, barre asko egiten dugu, jendea irribartsuago egoten da. Familiak askoz elkartuago daude. Errekurtso txikiagoak ditugu, baina irudimen handiagoa.

**Zer moduz integratu zara hemen?**

Oso ondo. Hemengoek ondo hartu naute eta ni naizen modura egokitzen saiatu dira, nik ere gauza bera egin dut.

**Musulmana zara. Zer moduz moldatzen zara hemen?**

Oso ondo. Ez dut edaten, ez dut erretzen eta ez dut txerri okelarik jaten, eta otoitz egiten dut, baina bizimodu arrunta daramat. Hedabideek musulmanen gainean ematen duten irudiak amorratu egiten nau. Asko manipulatzen dute. Sinesgarriena Al Jazeera da, musulmanen alde onak eta txarrak, biak, azaltzen dituelako. Gainontzekoek istorioaren bukaera bakarrik azaltzen dute. Hip-hop kantu baten dioten moduan, "Ikusitakoaren erdia bakarrik sinistu, eta ikusten ez duzunetik ezer ez".

**Zer moduz ikasketekin?**

Ondo. Azterketak gainditzeko ikasten dut. Bergarako Miguel Altuna ikastetxean Lehen Mailako Mekanizatuaren moduloa ikasten nabil. Modulo gehiago egin gura nituzke, edo agian unibertsitatera jo Filologia edo Informatika ikastera. Saharar askok kanpora jotzen dugu lanbide bat ikasi eta sorterrira bueltatzeko. Gazteria gara gure nazioaren zutabea eta guk ez badugu herria jasotzen, ez du beste inork egingo.

**Musikazalea ere bazara...**

Bai, Saharan rai musika entzuten genuen. Baina Euskal Herrira etortzean hip-hopak *harrapatu* ninduen, hitzengatik batez ere. Talde horien abestiak liburuak modukoak dira, baina irakurri beharrean, entzuteko dira. Gerora, lagun batek, Itsaso Maniasek, Kirrin aurkeztu zidan eta elkarrekin hip-hopa egiten hasi ginen. Johan eta Txarli batu eta Kultur LAB taldea sortu genuen.









JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 19 urte. **Zaletasunak:** Rap-a, irakurtzea, kirola egitea, beste kulturak... **Bete duzun amets bat?** Oñatin hainbeste urte egitea. Ez nuen uste halako aukera izango nuenik. **Eta betetzeko daukazun amets bat?** Saharako independentzia, bizitzan aurrera egitea, liburu bat idaztea... **Oñatitik gustukoen daukazun lekua?** Kultura etxea. **Baduzu maniaren bat?** Bai, larregi pentsatzen dut. **Liburu bat?** Paul Austerren *Leviathan* ikaragarria da. Orain Mexikoko iraultzaren gaineko liburuak irakurtzen nabil.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- S. Antonio 50 m2. Berritua.
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m2. Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m2. Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Ibargarai 118 m2. Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m2. Oso ondo.
- San Pedro 65 m2. Prezio ona.
- Martoko 83 m2. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 96 m2. Ondo.
- Fraiskozuri 104 m2. Ondo.
- Ortuibar 97 m2. Oso ondo.
- Zubiaurre 70 m2. Ondo.
- Zubiaurre 65 m2. Oso ondo.

***Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon.2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.***

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA:**
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 79 m². Berritzeko.
- Duplex berria. 72 m² + 34 m².
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Masterreka duplexa 170 m2.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- Simon Arrieta 73 m2. Berritzeko.
- Martoko 93 m2. Berrituta.
- **San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.**

**ANTZUOLA:**
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Duplexa salgai Sagasti auzoan. Eraikuntza berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai Sagasti auzoan. Hiru logela, bi komun, despentsa. Garajea aukeran. 607 63 48 88.

**Arrasate.** Otalora 2, azken pixua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Gune zabalak, altua, kanpora begira eta berritua. Garajea eta trastelekua ditu. 85 metro koadro. 626 35 60 95.

**Arrasaten** etxebizitza salgai. 140 m2. Bi terraza, bost logela, sukaldea, bi bainugela eta egongela. 647 41 93 66.

**Bergara.** Apartamentu berria salgai erdialdean. 40 m2. Sukaldea hornituta. 656 00 88 85.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdigunean. Berrituta. 667 80 92 89.

**Bergara.** Ortuibar kalean. Eraikuntza berria. 100 metro koadro. Lau logela, egongela, bi bainugela, bi balkoi. 943 76 25 38.

**Bergara.** Etxebizitza salgai, oso egoera onean eta guztiz berrituta. Jantzita. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela ditu. Baita berogailua eta gas naturala ere. 647 64 86 74

**Bergara.** Simon Arrietan. 80 m2. Berogailua, igogailua, guztiz berrituta. Garajea aukeran. 664 73 49 60.

**Bergara.** Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela eta berogailua ditu. 943 28 76 36.

**Elgeta.** Bigarren solairua. Hiru logela. Igogailua. 946 81 71 97.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai, prezio oso ekonomikoan. Telefonoan: 645 71 76 25.

**Mutriku.** Txaleta salTzen da. Telefonoa: 943 79 22 79.

**Oñati.** 86 m2, Bidebarrietan, hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, ganbara eta garajea. 635 73 08 86.

**Oñati.** Baserria salgai. Telefonoa: 943 78 14 72.

**Oñati.** Etxebizitza salgai. Telefonoa: 943 78 03 08.

**Oñati.** Euskadi etorbidean etxea salgai. Oso eguzkitsua. 945 14 18 17 edo 645 72 42 42.

**Oñati.** San Lorentzon etxea salgai. Garajearekin eta ganbararekin. Telefonoa: 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Etxebizitza errentan ematen da. 635 71 96 28.

**Arrasate.** 3 logelako etxebizitza alokagai. Deitu 20:00etatik aurrera. 610 94 22 28.

**Arrasate.** Ikasleendako etxebizitza alokagai Unibertsitatetik oso gertu. Telefonoa: 943 79 35 66 edo 695 70 76 25.

**Benidorm.** Etxea alokagai. Berria. Prezio onean. Telefonoa: 945 44 53 60.

**Vera (Almeria).** Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Bikote batek etxea errentan hartuko luke. Telefonoa: 659 35 92 21.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 14 51 45.

**Aretxabaletan** bi neskak etxea errentan hartuko lukete. 658 73 91 65 edo 617 98 62 10.

**Arrasate.** Bikote batek logela bat edo biko etxebizitza errentan hartuko luke. 666 97 80 88.

**Arrasate.** Gazte batek estudio bat hartuko luke. Deitu telefono honetara: 639 96 30 98.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu telefono honetara. 627 43 92 70.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Garaje itxia salgai Kalegoin. Bi autorendako tokia du. Deitu telefono honetara: 666 44 10 09.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia saltzen edo alokatzen duterdialdean (Sta Kruz). Deitu telefono honetara: 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

**Arrasate.** Garaje itxia Erguin kalean, Larrea parean. 16 m2 eta lehen solairuan. Autoa erraz sartzeko moduan, maniobrarik gabe.Deitu telefono honetara: 669 49 49 96.

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Jokin Zaitegi plazan. Telefonoa: 646 45 47 59.

**Arrasate.** San Andres auzoan 42 m2-ko garaje itxia saltzen da. Deitu telefono honetara: 667 53 89 66 edo 636 34 77 08.

**Arrasate.** Usaetxe plazan, 13 m2-ko garajea salgai. 20:00etatik aurrera deitu. 678 33 37 11.

**Bergara.** Garaje itxia saltzen da. San Lorentzo auzoan (Zapelaitz azpian). Deitu telefono honetara: 943 76 40 05.

**Bergara.** Garajea itxia salgai Ibargarai 35 kalean. Deitu telefono honetara: 645 72 06 47.

**Bergara.** Garajea salgai Zurraderon.Deitu telefono honetara: 660 93 00 32.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garajea emango nuke errentan Sagastin. Trastelekua du. 616 03 05 01.

**Aramaio.** Garaje itxi eta berria errentan ematen da Iturri Zuri kalean. 15 m2 gutxi gorabehera. Gauez deitu telefono honetara: 945 44 51 97.

**Arrasate.** Garaje itxia errentan emango nuke Olarten. Deitu telefono honetara: 628 88 18 77.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Lokala alokagai Durana 36an. Guztiz berrituta. 943 79 10 60.

**Arrasate.** Bulegoak alokagai Otalora 18an. 638 17 93 63.

**Arrasate.** Erguin auzoan dago lokala. 75 m2 ditu eta 7 metro garai da. Komuna eta ur beroa. 685 72 81 32.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Gazte koadrila batek lokala hartuko luke errentan. 659 98 13 76.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Gurago euskaraz badaki. Deitu telefono honetara: 943 71 20 57.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko, egunean hiru orduz: 12:30-15:30. Deitu telefono honetara: 656 74 29 28.

**Bergara** Goizeko 07:00etatik 09:30era etxean lan egiteko norbait behar da. Euskaraz hitz egitea baloratuko da. Deitu telefono honetara: 943 03 89 23.

**Bergaran** pertsona bat behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizean, 07:30etik 11:30era. 943 03 45 30.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek umeak edo adinekoak zainduko lituzke, arratsaldez. 659 82 72 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak edo adineko pertsonak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Haurrak nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest dago neska batek. Baita etxeko lanak egiteko edota tabernak garbitzeko ere. Deitu telefono honetara: 943 79 13 10 edo 678 15 36 29.

**ANGIOZAR**

**Ortzi erretegia alokatu egiten da.**

**943 78 22 80**
**665 72 24 46**

**Arrasate.** Neska arduratsu batek umeak eta pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak ere egingo lituzke. Roxana. Deitu telefono honetara: 662 08 22 03.

**Bergara.** Arratsaldeetan lan egingo nuke, orduka (15:00etatik aurrera). 646 12 53 20.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak edo tabernak garbitzeko. Claudia. 671 41 22 16.

**Bergara.** Neska lanerako gertu; garbiketa lanak egiten, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen edo sukaldean laguntzen. Orduka lan egingo nuke edo barneko langile moduan. Deitu telefono honetara: 647 17 55 69 edo 663 46 93 60.

**Neska** prest umeak edo pertsona nagusiak zaindu, ostalaritzan aritu edo garbiketa lanak egiteko. Arrasaten edo Aretxabaletan. Deitu telefono honetara: 638 15 52 28.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke etxean. 21:00etatik aurrera deitu, mesedez. Deitu telefono honetara: 943 76 03 75.

### 502. EMAN

**Alemanezko** irakasle bat behar da, Bergaran, 13 eta 16 urte bitarteko gastetxoei klaseak emateko. Deitu telefono honetara: 607 33 96 85.

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskolak ematen ditut. Deitu telefono honetara: 943 79 03 83.

**Arrasate.** Goi Mailako Ingenieru Industrialak klase partikularrak ematen ditu. Matematika,fisika,marrazketa,teknologia,elektrizitatea... Maila guztiak.Esperientzi handia. 630 71 35 83.

**ARETXABALETA**

**Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.**

**652 70 82 46**

**Arrasate.** Klase partikularrak ematen dira, euskaraz edota gazteleraz. DBHko 4. mailara arte eta batxilergoan matematika, fisika eta ingelesa. Deitu telefono honetara: 665 70 18 90.

**Ingelesa.** Ingelesa ikasteko (hizketaldi eskolak) bertako irakasle baten bila nabil. Deitu telefono honetara: 635 56 33 31.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A-3** Saltzen da oso egoera onean. 5 ate, 1.9 TDI. 619 92 91 18.

**Citroen Saxo** diesela.85.000 km. (2000koa). Deitu telefono honetara: 657 79 70 78.

**Ford Focus diesela.** 100 zaldi, 2 urtekoa, 66.000 kilometrorekin. Aire-klimatizagailuarekin eta auto barruko ordenadorearekin. Oso ondo zaindua. Deitu telefono honetara: 607 91 31 80.

**Golf GT** gorria salgai. 133.000 km. 1991koa. Aire girotua. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 661 96 62 70.

**Golf GTI 3** 2115 ZP. 155.000 km. Eibach suspentsio-sistema. Beira tindatuak.Deitu telefono honetara: 669 57 47 96.

**Honda** CBR F Sport Rossi motorra salgai. 15.000 kilometro ditu eta oso ondo zainduta dago. Salneurria adostear. Deitu telefono honetara: 636 64 90 60.

**Hyundai Lantra** 1.6 autoa salgai. 900 euro. Deitu telefono honetara: 686 41 33 58.

**Mercedes-Vito 110** furgoneta salgai. Prestatua. Berogailua dauka. 18.000 euro. Deitu telefono honetara: 675 00 95 77.

**Rieju RR.** Kolore berdea. 2002koa. 49 cm3. Egoera onean eta matrikulatuta. 656 00 85 15.



Garbi® S.L.

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)**
**943 33 18 37 (HERNANI)**

**VFR 800i** motorra salgai. Grisa. Colin tapa motorraren kolore berdinekoa. 35.000 km. 1998koa. Maletarekin. Transmisio kit berria. 7000 euro negoziagarriak. 615 76 38 43.

**Volkswagen** Transporter 92 furgoneta salgai. Ohea, eguzki-oihala eta bizikletak eramatekoa dauzka. 665 73 27 49.

**Yamaha YZF 600** motorra salgai. 38.000 kilometro. 4.000 euro. 636 65 25 70.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Persiar** katakumak salgai. Osasun ona daukate. 200 €. Manoli. 610 64 58 41.

### 703. EMAN

**Antzuola.** Txakurkumeak opari egiten ditugu. Iluntze aldera deitu. 943 78 70 64.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoi** kromatikoa salgai. Barcalore etxekoa. 120 baxu. Prezio eta baldintza ezinhobeak. Deitu telefono honetara: 943 76 59 56.

**Denda** bateko altzariak eta estrak (kutxa erregistratzailea...) saltzen dira. Deitu telefono honetara: 610 78 46 22.

**Egurrezko bi mahai** salgai, aulkiekin. Baserri, txoko edo borda baterako egokiak. Prezio ona. Deitu telefono honetara: 943 79 31 66 edo 635 75 09 47.

**Hektarea bateko pinudia** salgai Bergaran. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

**Karabana.** Knaus Azur markakoa. 4 lagunentzako. Gama altukoa eta oso egoera onean. Telefonoa: 615 77 00 01.

**Nikon F65** eta objektiboak: 28-80, 70-300 Nikon originalak, prezio onean. 635 71 15 34.

**Oñati.** Lursaila salgai. 9,5 hektarea pinudi. 659 04 20 99.

**Patinak** saltzen ditut. 35-38 neurrikoak, berriak, 25 eurogatik. 670 08 12 16.

**Pearl** markako bateria salgai. Osagarri guztiak ditu. 600 eurotan. 636 64 90 60.

**Senar-emazteentzako logela** salgai. Ohea, armairua, komoda, gau-mahaiak eta aulkia. Modernoa. 500 euro. Deitu telefono honetara: 943 77 01 27.

### 802. EROSI

**Txakurra** edukitzeko lursaila erosi edo alokatuko nuke. Telefonoa: 699 85 49 58.

### 803. EMAN

**Setter** arrazako txakurra opari egiten da. Urte eta erdi du. Gorra da. Deitu telefono honetara: 678 43 31 07.

### 806. GALDU

**Oñati.** Herri egunean poltsikoko telefonoa galdu nuen. Aurkitu duenak deitu. 943 78 62 38.

**Txaketa.** Neurria ez den urdin iluneko txaketa bat hartu nuen konturatu barik Maritxu gaueAn Ekaitz tabernan. Bestalde, norbaitek EasyWear markako txaketa urdin bat hartu zuen. 639 96 30 98.

### 808. BESTELAKOAK

**Biltegiko eta bulegoko altzariak** eta laneko erremintak aukeran. Deitu telefono honetara: 657 79 58 76.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

w w w . l a s a g a b a s t e r . c o m

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Arrasateko **Pedro Etxagibel Urizar** eta **Julene Altube Muñoa** orain dela 50 urte urriaren 13an ezkondu ziren eta aurten ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Gertukoek zoriondu egin nahi dituzte. Zorionak eta urte askotarako, familiaren partetik!

## hildakoak

- **Angel Maria Riego Urreta.** Arrasaten, irailaren 27an. 57 urte.
- **Begoña Ezkurra Pedrosa.** Bergaran, irailaren 28an. 43 urte.
- **Gregorio Domingo Gordillo.** Arrasaten, irailaren 28an. 74 urte.
- **Felisa Pueyo Espatolero.** Arrasaten, irailaren 29an. 91 urte.
- **Iñaki Romaratezabala Faido.** Aretxabaletan, irailaren 30ean. 75 urte.
- **Simon Kortabarria Kortabarria.** Aramaion, irailaren 30ean. 73 urte.
- **Maria Teresa Mukika Heriz.** Arrasaten, irailaren 30ean. 69 urte.
- **Gregorio Elizaran Aluztondo.** Arrasaten, urriaren 1ean. 81 urte.
- **Jose Uribe Urrutia.** Leintz Gatzagan, urriaren 2an. 80 urte.
- **Fermin Carrillo Dominguez.** Eskoriatzan, urriaren 4an. 65 urte.
- **Eugenia Sagasta Arroita.** Bergaran, urriaren 8an. 98 urte.
- **Estefania Askasibar Lazkano.** Arrasaten, urriaren 9an. 82 urte.
- **Rufina Arosa Arregi.** Antzuolan, urriaren 9an. 91 urte.
- **Jesus Catania Vega.** Aretxabaletan, urriaren 9an. 98 urte.

ESKELA

## Miren Gartziandia Muxika

Bergaran hil zen 2006ko urriaren 10ean, 53 urte zituela.

*Joan zaren arren,*
*zure alaitasuna*
*betiko geldituko da gurekin.*

Zure lehengusu-lehengusinak
(Mozos-Muxika, Gartzia-Muxika, Pastor-Muxika eta Muxika-Garitano)
Bergaran, 2006ko urriaren 11n.

URTEURRENA

## Miren Aranzazu Azcargorta Cortabarría

2005eko urriaren 11n hil zen, 85 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Aurea Agirrezabal Arrese



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Eugeni Sagasta Arroitia

Celedonio Etxeberriaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko urriaren 8an, 98 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko urriaren 11n.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 85 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.**





## berriak

> GOITB

### Marrazki bizidunak egunean hiru aldiz ikusteko aukera

Egunero ikusi daitezke marrazkiak Goiena Telebistan. *Bihurkorrak*, *Snorkel* eta *Nonochan* dira txikienentzako eskaintzaren protagonistak. Ordutegiari dagokionez, lehenago eguerdi eta arratsaldetan eskaintzen genizuen; orain beste tarte bat zabalduko dugu marrazkientzat. Arratsaldeko 17:15ean ere marrazki bizidunak izango dituzue ikusgai Goiena Telebistan.

> 'BIZITEGI'

### Dekorazio kontuak atsegin badituzu, hau da zuretako tartea

Astelehenean saio berri bat estreinatuko dute GOITBn. Oraingoan dekorazio kontuak aitzakia hartuta, etxez etxe ibiliko da Aitor Leturia kazetari goierritarra. Saio hau Goierri Telebistak ekoiztu du eta Tokiko elkartea osatzen duten euskarazko toki telebista guztietan ikusi ahal izango da. Lehenengo saioan, Joxe Antonio Barandiaranek hiru solairutako etxe ederra erakutsiko digu.

> ARRASATE IRRATIA

### Astelehenera arte jai izango du Arrasate Irratiko autobusak

Lan aste laburra izan du FMko 107.7ko autobusak. Astelehenean itzuliko da berriz ere gonbidatuz betea, uhinetan barrena. Astelehena bitartean, elkarrizketa bildumak izango dituzue goizero entzungai. Pello Zabalak, uraren gainean astean kontatutakoak berreskuratuko ditugu eta baita Une musika taldeko Aitor Uriarterekin izandako solasaldia ere. Piztu, bada, irratia, 10:00etan.

> DANBAKA

### Danbaka musika lehiaketako lehen edizioko finalistak

Datorren egubakoitzean, urriaren 20an, abiatuko da Danbaka musika lehiaketa. Dena prest dago, eta motorrak berotzeko, datozen egunetan, Danbaka musika lehiaketako lehenengo edizioko finalisten kontzertuak eskainiko dizkizuegu.

Horrela bada, bihar, eguenena, Potemkin; egubakoitzean, Muted; eta zapatuan berriz, Sharon Stoner taldearen txanda izango da. Hauek guztiak, arratsaldeko 4etan.

**'BERTSO AFARIA'** > ZAPATUAN ETA DOMEKAN

# Egañarekin eta Lizasorekin bertsotan, umore onean

Untzillarrak, jaiei hasiera emateko mahaiaren bueltan bildu ziren ostiraleko bertso afarian

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Asteburuan Untzillako jaiak ospatu dituzte Aramaion. Ostiralean auzotarrak bertso afarian elkartu ziren. Bapo afaldu ondoren eta purua erretzen zutela bi ordu luzez jardun zuten bertsotan Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ezagunek. Denentzat izan zituzten bertsoak: apaizarentzat, auzo alkatearentzat..., baita Goiena Telebistako kameralariarentzat ere. Giro ezin hobea izan zuten Untzillan. Saioa asteburuan eskainiko dizuegu: zapatuan 20:00etan, eta domekan 13:45ean.



**BERTSOTAN** Egañak eta Lizasok (irudian) saio bikaina egin zuten Untzillan.

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENA, 21:45

# Gaurkotasunezko erreportaje landuak, astelehenetik aurrera

**GOIENKARIA** > ARRASATE

*Adopzioak: gurasoak edukitzeko eskubidea duten haurrak*; honako izenburupean dator asteleheneko erreportajea. Guraso izatea da bikote askoren ametsa, eta amets hori errealitate bihurtzeko bide bat baino gehiago dago. Euskal Autonomia Erkidegoan 200 eskaera baino gehiago egiten da urtero. Ibarreko hainbat familien esperientzia jaso dute erreportajean. Anak, bi eta lau urteko bi alaba txinatar ditu. Nekane Bulgariara joan zen Anjeren bila. Elena eta Xabierrek Boliviatik ekarri zuten Teresa txikia, aurrez beste hiru mutikoren gurasoak baziren arren. Amagoia Lasagabasterrek osatu du gidoia, Josu Txintxurretak kamera lanak egin ditu eta Monika Monterok egin du muntaia.

Astelehenero erreportaje bat eskainiko dute, 21:45etik aurrera. Askotariko gaiak landuko dituzte: inmigrazioa, lehen sektorea, turismoa... Erreportaje sorta, Goiena Telebistak eta Goierri Telebistak elkarlanean ekoiztu dute. Gogoratu astelehenero duzuela hitzordua.

## telebegi

**Unai Moraza** > www.eibar.org/blogak/telezaborra

### Telecincoren indarra

D*esafío bajo cero* kendu dute. Telecinco-n huts egin duen apustu berri ia bakarra izan da. Gainontzeko saioek audientzia nabarmenekin jarraitzen dute. Harrigarria Telecinco-rekin gertatzen dena. Kate berriak agertu dira (Cuatro, La Sexta, TDT...) baina Telecincoren shareak ez du atzera egiten. Goizean, arratsaldean, prime-timean eta gauean. Eguneko tarte guztietan programazio lehiakorra dute. Albiste arrosen inguruan biraka ia orduoro, notizia berak *ad nauseum* errepikatuz. Baina funtzionatzen du.

Balantzaren beste aldean Antena 3 dago, ez dute asmatzen. TVE1 beste noizbaiterako lagako dugu. Anita Obregonen telesail berriak hiru aste iraun du. Arratsaldeei buruz: *Pasión de Gavilanes* bukatu zenetik, bazkalosteko datuak penagarriak dira. Goizean arazo larriak dituzte. La Ruletarekin zorte ona izan badute ere, ez dakite zer egin goizak hobetzeko, goizeko 10etan Buenafuenteren programa errepikatzen dute! Campos fitxatu zuten goizetan irabazteko, Telecinco-k Ana Rosa Quintana kendu zien, goizetako erregina berria.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Eguena 12**
**10:00** Elkarrizketa bilduma. Meteorologiaren geltokian, Pello Zabala, urari buruz; Iker Barandiaran, 2. Danbaka musika lehiaketaren gainean; ...
**16:00** Danbaka I.eko musika lehiaketa: Potemkin

**Egubakoitza 13**
**10:00** Elkarrizketa bilduma.
**16:00** Danbaka Ingo musika lehiaketa: Muted

**Zapatua 14**
**10:00** Elkarrizketa bilduma.
**16:00** Danbaka I.eko musika lehiaketa: Sharon Stoner

**Domeka 15**
**10:00** Elkarrizketa bilduma.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Eguaztena, 11**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire . **14:15** Danbaka. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:45** Gaurkoak **15:47** 16mm. **16:15** Klip@. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Jaiak 2006 **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm. **16:15** Klip@k. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Berbaire. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klip@ **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak. **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Gatza eta berakatza. **22:00** Zera dio **22:15** Ilunpean. **22:45** Berriak. **23:15** Elkartasun bideak. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Izan ziren. **00:00** Emisio amaiera.

**Eguena, 12**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa, sukaldaritza saioa. **12:15** 16 mm. **12:45** Berbaire. **13:45** Segalariak Suitzan. **14:15** Klip@: musika taldeen bideo klipak **14 :30** Astekoak. **14:45** Jaiak 2006: Maritxu Kajoi **15:15** Izan ziren. **16:00** Untzillako bertso afaria. **16:30** Gatza eta berakatza. **16:45** MKT. **17:15** Elkartasunaren bideak. **17:45** Marrazki bizidunak. **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo **20:30** Zera dio. **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Jaiak 2006: Maritxu Kajoi. **22:15** Izan ziren. **22:30** Astekoak. **22:45** 16mm. **23:15** Erreportajea. **23:45** Emisio amaiera.

**Egubakoitza, 13**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Klip@. **11:15** Astekoak. **11:30** Iparrorratza. **12:00** Jaiak 2006: Maritxu Kajoi. **12:30** Izan ziren. **13:00** Gatza eta berakatza. **13:15** Untzillako bertso afaria. **13:45** Klip@. **14:15** Marrazki bizidunak, Snorkeldarrak. **15:45** Ilunpean. **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Astekoak. **17:30** Marrazki bizidunak. **18:45** Klip@. **19:15** Iparrorratza. **19:45** Erreportajea. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean. **21:00** 16mm. **21:30** Behazulo. **22:00** Izan ziren. **22:15** Jaiak 2006: Maritxu Kajoi. **23:00** Teknopolis. **23:30** Emisio amaiera.

**Zapatua, 14**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorrak eta Snorkeldarrak. **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa, sukaldaritza saioa. **12:15** 16 mm **12:45** Iparrorratza **13:45** Segura dantzan. **15:15** Izan ziren. **16:00** Erreportajea. **16:30** Marrazki bizidunak. **18:30** Berbaire. **19:00** Astekoak. **19:30** 16 mm. **20:00** Untzillako bertso afaria. **20:30** Klip@. **20:45** Elkartasunaren bideak. **21:15** Behazulo. **21:45** Berbaire. **22:30** Astekoak. **22:45** Ilunpean. **23:15** Goierriko bertso saioa. **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 15**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorrak eta Snorkeldarrak. **11:00** Klip@. **11:15** Astekoak. **11:30** Erreportajea. **12:00** Miarritzeko baleta. **12:30** izan ziren. **13:00** gatza eta berakatza. **13:15** Berbaire. **13:45** Untzillako bertso afaria. **14:15** Marrazki bizidunak. **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Astekoak. **17:30** Ilunpean. **18:00** Goierriko bertso saioa. **18:45** Klip@. **19:15** Iparrorratza. **19:45** Segalariak Suitzan. **20:15** Zera dio. **20:30** Ilunpean. **21:00** 16mm. **21:30** Berbaire. **22:00** Izan ziren. **22:15** Segura dantzan. **23:45** Emisio amaiera.

**Astelehena, 16**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Teknopolis . **14:15** Erreportajea: Adopzioa. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:15** 16mm. **15:45** Gaurkoak **15:47** Klip@. **16:00** Bizitegi. **16:15** Jazzmina. **16:45** Albiste aurrerapena **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Untzillako bertso afaria. **18:15** Eltze beroa. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:15** Ilunpean. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak. **20:45** Berriak. **21:15** Harmailatik. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Erreportajea: Adopzioa. **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** Berriak. **23:15** Didjeridu. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Ilunpean. **00:00** Emisio amaiera.

**Martitzena, 17**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45** Gaurkoak. **13:47** harmailatik. **14:15** Hitz bitan. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:15** Ilunpean. **15:45** Gaurkoak **15:47** Elkartasun bideak. **16:15** Ikusmira. **16:45** Albiste aurrerapena **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Didjeridu. **18:15** Klip@. **18:30** Bizitegi. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Berriak. **21:15** Berbaire. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Ikusmira. **22:15** 16mm. **22:45** Berriak. **23:15** Hitz bitan. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Harmailatik. **00:00** Emisio amaiera.

# Urriak 11-20

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Kontzertua



BERGARA

**> Musika eskolako orkestrak kontzertua egingo du Kataluniara joan aurretik**

Bergarako musika eskolako orkestra Capelladesera doa, Bartzelonara. Horren aurretik, kontzertua egingo dute: gaur, eguaztena, joko dute Mariaren Lagundiko elizan, 18:00etan. Urriaren 12tik 14ra bitartean izango dira Capelladesen.

## Zinema



ARRASATE

**> 'Alatriste' filma ikusteko aukera izango da Amaia antzokian**

*Alatriste* film arrakastatsua emango dute. Hauxe da ordutegia: bihar, eguena, 19:30ean; etzi, egubakoitza, 22:00etan; hilaren 15ean, domeka, 19:30ean, eta 16an, astelehena, 20:30ean. Agustin Diaz Yanes da zuzendaria.

## Erakusketa



ESKORIATZA

**> Elbruce mendiaren gaineko argazki erakusketa Inkernu tabernan**

Eskoriatzako Inkernu tabernan Elbruce mendiaren gaineko argazkiak erakutsiko dituzte hilaren 16tik aurrera. Karmelo Oñate eskoriatzarraren lanak dira. Elbruce Errusian dago eta Europako tontor altuena da.

## Ikuskizunak

BERGARA

**> 'Bideak' dantza ikuskizuna egingo du Aukeran taldeak**

*Bideak* dantza ikuskizun berria taularatuko du Aukeran dantza taldeak Edu Muruamendiaratz bergararrak zuzenduta. Sarrera-txartelak aurretik eros daitezke kultura etxean 10 eurotan.

Ikuskizuna hilaren 20an izango da pilotalekuan.

## Lehiaketak

DEBAGOIENA

**> Euskadiko argazki zaharren lehiaketa, KZguneetatik**

Euskadiko 1975 aurreko argazki lehiaketa antolatu du Eusko Jaurlaritzak, eta KZguneetatik parte har daiteke horretan. Trolley maletak, reflex kamera digital bat eta belaunaldi berriko bideokamerak dira sariak.

Argibideak: *www.kzgunea.net*.

ANTZUOLA

**> Antzuolarrendako argazki lehiaketa deitu du udalak**

Antzuolan jaio edo bizi direnendako argazki lehiaketa antolatu du udalak. Gaia librea da, eta norberak hiru argazki aurkez ditzake gehienez ere. 30 x 40 cm-ko kartulinatan aurkeztu behar dira lanak; argazkiaren tamaina librea da. Papereko lanak udaletxean utzi behar dira urriaren 27a baino lehen; argazki digitalak *kultura@antzuola.net* helbidera bidali behar dira. 150, 100 eta 90 euroko sariak emango dituzte.

Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo dute Olaran etxean.

## Erakusketak

ESKORIATZA

**> Margolan eta poema erakusketa dago Ibarraundin**

*Begirada poetikoa* erakusketa dago Ibarraundi museoan. Maider Zubillaga eta Maite del Rey arrasatearrek antolatu dute: Zubillagak margolanak egin ditu, eta Del Reyk, poesiak. Bi lan motek elkarrekin zerikusia dute.

Hilaren 14ra arte dago zabalik.

BERGARA

**> Pedro Luis Ormazabalen argazki erakusketa**

Pedro Luis Ormazabalen argazkiak daude Aroztegi aretoan urriaren 29ra bitartean.

Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

ARRASATE

**> Urriko Iraultzak Arrasaten izan zuen eraginaren gainean**

*Amets Gorrien Taupadak* izeneko erakusketa ikusteko aukera dago Monterronen. 1934ko Urriko Iraultzak Arrasaten izan zuen eragina erakusten da. Debagoieneko ehunka lagun, 16 eta 25 urte artekoak, sindikatuetan eta politikan ibili ziren, eta Errepublika Sozialaren alde lan egin zuten; horregatik, kartzela, tortura eta erbestea bizi izan zituzten. Horiei omenaldia egiteko modua da erakusketa, eta Rafael Zeziaga Argentinan errefuxiatuak bere lanak erakusten ditu.

Intxorta 1937 Kultur Taldeak antolatzen du erakusketa, eta hilaren 15era arte dago ikusteko aukera.

ELGETA

**> Kontxi Idigorasen margolan erakusketa zabalduko dute**

Kontxi Idigoras margolariaren lanen erakusketa izango da Espaloia kafe antzokian. Hilaren 16an, astelehena, inauguratuko dute.

Urriaren 26ra arte egongo da zabalik.

## Musika

ARRASATE

**> Barricada taldearen kontzertu akustikoa Amaia antzokian**

Iaz hamaseigarren lan luzea kaleratu zuten nafarrek, *Latidos y mordiscos* izenekoa. Arrasaten kontzertu akustikoa egingo dute.

Urriak 14, zapatua, 20:00etan.

BERGARA

**> Techno jaialdia egingo dute datorren zapatuan, hilak 14**

Jam aretoa bere 10. urteurrena ospatzen hasiko da. Lehenengo emanaldia zapatuko techno jaialdia izango da, Ben Sims (Theory UK) disko jartzailearekin. Sarrerak, 20 euroren truke.

Urriak 14, zapatua, gauerdian.

ARRASATE

**> Ozen rock talde arrasatearrak kontzertua egingo du**

Arrasateko Ozen rock taldeak kontzertua egingo du Gure-Leku tabernan, Zarugalde kalean.

Hilaren 14an, zapatua, 23:00etan.

## Zinema

ARRASATE

**> 'Jorge el curioso' filma emango dute Arrasaten**

*Jorge el curioso* filma emango dute Amaia antzokian. Animaziozko filma da eta adin guztietakoek ikus dezakete.

Hilaren 15ean, domeka, 17:00etan.

ARAMAIO

**> 'La novia cadáver' filma ikusteko aukera izango da**

Tim Burton zuzendariaren *La novia cadáver* filma emango dute hilaren 15ean, domeka, 17:00etan.

Kultura etxean izango da emanaldia.

PROPOSAMENA

BERGARA

### > Elosuko Ganadu Feria eguna gauera arte ospatuko dute

Elosuko ganadu feriak 28. aldia du aurten, eta berritasun handi bat dakar: gauean ere ekintzak egongo dira. Hala, 20:30ean afaria egingo dute Elurmendi elkartean; 22:30ean, dantzaldia izango da; eta 03:00etan, baratxuri zopa. Bestalde, feriara joateko autobusak egongo dira ordu erdiro Herriko plazatik.

Azoka 09:00etan hasiko da; sari banaketa, idi erakustaldia eta herri kirolak ere izango dira.

Elur Txiki elkarteak antolatzen du, Bergarako eta Azkoitiko Udalekin.





**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-10-11

# Ama, kantari izan gura dut

**50 LAGUN** Hasieran neska-mutiko gutxi azaldu baziren ere, *casting*-a amaitu orduko 50 abeslari zituzten *Betizu*-koek

**AUKERATUAK** Epaileek dagoeneko badakite ze 24 abeslarik egingo duten aurrera; egunotan emango dute abisua

**HIRU ENTSEGU** Urriaren 26an egingo dute grabaketa, baina lehenago abeslariek hiru entsegu egingo dituzte

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Erretratuko Ivana eta Arrate dira *casting*-a egitera animatu diren lehenetakoak. Hainbat lagunekin etorri dira: Ane, Eider, Ainhoa, Miren, Ixiar... Eta guztiek hartu dute esku *casting*-ean. Epaileen aurrean eurek prestatutako abestiak abestu eta gero itzuli dira, ordurako lasai: "*Maritxu nora zoaz* eta Ken Zazpi taldearen *Ilargia* abestu ditut nik", esan digu Ivanak. Arratek, berriz, La Oreja de Van Gogh taldearen *Muñeca de trapo* aukeratu du. Horrekin batera, epaileek *Betizu*-ko abestia abesteko eskatu diete, eta badirudi abesti horrekin ez direla horren ondo moldatu.

Epaileen aurrean neurria eman badute azarotik aurrera ETBk eskainiko duen *Egin kantu!* saioan ikusiko ditugu, beste 22 lagunekin batera. Horrela azaldu digute saioko arduradunek: "*Egin kantu!* herririk herri ibiliko den saio martxosoa da. Astero, Euskal Herriko haurrek garai bateko eta egungo kanta ospetsuak abestuko dituzte taula gainean, eta gero, ikusleek abesti onenen aldeko botoa eman ahal izango dute *Betizu*-ko webgunean. Saioaren asmoa ez da abeslari onenak saritzea, ez da lehiaketa, abesti onena aukeratzea da asmoa. Hori bai, abeslarien artean sari politak banatuko ditugu, egingo duten esfortzua saritzeko asmoz".

**ENTSEGUAK DATORREN ASTEAN**

*Betizu* saioko arduradunek dagoeneko aukeratu dituzte astelehenean Arrasateko *casting*-era aurkeztu ziren abeslari onenak: "Hasieran gazte gutxi gerturatu ziren, baina azkenerako 50 neska-mutiko izan genituen, eta horietatik 24 aukeratuko ditugu".

Aukeraketa egin eta gero, 24 neska-mutiko horiek hiru entsegu egingo dituzte (urriaren 16an, urriak 20an eta urriak 25ean), eta, urriaren 26an egingo dute Arrasateko grabaketa: "Oraindik ez dakigu entsegu horiek non egingo ditugun, Udalaren erantzunaren zain gaude-eta".



**IVANA ETA ARRATE** *Casting*-a eginda ere, guretako abesten jarraitu zuten Ivanak eta Arratek; baita euren lagunek ere. X.U.

## ahobero

### "Euskadi-Katalunia partiduko antolatzaileak salatuko ditugu; espainiarren aurkako adierazpenak arrazistak eta xenofoboak izan dira"

**España y Libertad** > Elkarte *integratzailea*

Zelai guztietan esaten dena hain zorrotz zainduko balute, zer esango lukete?

## iturri onetik

### Txinatar jatetxe bat zabalduko dute Bergaran, Fraiskozuri kalean

Denbora luzean zurrumurruak egon dira gai horren bueltan: Fraizkozurin, Antxoni jatetxea egon zen tokian, txinatar jatetxea zabalduko zutela. Baina hilabeteak joan hilabeteak etorri, ez zen nobedaderik sumatzen. Dagoeneko, baina, txinatar batek Fraiskozuri kaleko 7. zenbakian jatetxea zabaltzeko eskaera egin du udaletxean. Urte asko dira Bergarak ez duela txinatar jatetxerik.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Mankomunitate ahula

Arrasateko estatu kolpeak eraman du Mankomunitatea hedabideetara. Ez da broma udalaren ordezkari guztiak aldatzea eta, are gutxiago, Mankomunitateko lehendakaria elkargunetik kanporatzea.

Dena den, aldaketa horrek eragin badu zarata handia, niri beste gai batek eragin dit kezka. Debagoiena dago une erabakigarrian, Lurralde Zatiko Plana gauzatzeko orduan, autopistaren eragina bere alde jartzeko premian, etorkizunari buruzko kinka larrian. Eta Mankomunitatearen hilean behingo azken batzarrean puntu bat izan zen txakurtegi zerbitzua jartzea.

Hain aurreratuta daude lan garrantzizkoak? Ala, besterik barik, ez dago ganorarik? Beste modu bateko funtzionamendua behar da Mankomunitatean. Hauteskundeen ondoren, agian?

## ai, ene!



### Bisita astunak deskargatzeko aulkia

Etxean, lantokian bisita nekagarriren bat jasotzen duzula? Ba aulki honetan esertzeko gonbidatu besterik ez daukazu.

http://elkartu.net/blogak/zazpi

